

ARABIDE 2026-2028

Araba Eskubideen Bidean

Arabako Foru Aldundiko
Berdintasunaren eta Giza Eskubideen
Zuzendaritzarako
Esparru-dokumentua

ARABIDE 2026-2028

Araba Eskubideen Bidean

Arabako Foru Aldundiko
Berdintasunaren eta Giza
Eskubideen Zuzendaritzarako
Esparru-dokumentua

Egilea: Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedra. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco

Leioa, 2025eko azaroaren 6a

araba álava
foru aldundia diputación foral



Giza Eskubideen
eta Botere Publikoen
UNESCO Katedra
Cátedra UNESCO
de Derechos Humanos
y Poderes Públicos



Aurkibidea

Sarrera	5
1. Abiaburuak	7
1.1. Nazioarteko araudia: Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea.....	7
1.2. Giza eskubideen aldeko politika publikoen aurrekariak AFAn	10
1.3. Arabako Lurraldearen Mapa Historikoa.....	13
1.3.1. Taldekako ikuspegia	14
1.3.2. Ikuspegi estrukturalagoa: gizarte garaikidearen konplexutasuna	14
1.3.3. Lurralde eta demografia ikuspegia	15
1.3.4. Sintesi bat.....	17
1.4. Diagnostikoa.....	17
2. Printzipio gidariak	20
2.1. Zatiezintasuna eta interdependentzia	20
2.2. Giza eskubideen unibertsaltasuna, besterenezintasuna eta betetze progresiboa	21
2.3. Lidergoa, subsidiariorotasuna eta koordinazioa	22
2.4. Gardentasuna, parte-hartzea eta kontuak ematea.....	23
2.5. Kolektibo zaurgarrienaganako begirada lehenetsia	23
3. Helburuak	25

4. Jarduera-eremuak	27
4.1. Esparru-dokumentuaren parte-hartze prozesua	28
4.2. Giza eskubideei buruzko prestakuntza: AFAren barruan eta Arabako eragile estrategikoentzat.....	29
4.3. Araban giza eskubideak babesteari eta sustatzeari buruzko sentsibilizazioa. .	30
4.4. Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza	31
4.5. Giza eskubideen koordinazioa eta ikuspegia Kulturartekotasuna, Berdinta- suna eta Lankidetza arloetan.....	32
4.6. Arabako giza eskubideen agenteen lotura-sarea indartzea eta Arabako Foru Aldundiak giza eskubideen erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, uda- lak, koadrilak) parte hartzea.....	33
4.7. Giza eskubideen barne-ikuskaritza.....	34
4.8. Memoria Historikoa berreskuratzea Araban.....	35
4.9. Arabako iragan hurbileko indarkeria politikoari arreta emateko programa ...	36
5. Ekintzak eta kronograma	38
Dokumentuen zerrenda	40

Sarrera

Esparru-dokumentu honen **helburua, Arabako Lurralde Historikoaren (ALH) inguruabarrak eta ahalmenak kontuan hartuta, giza eskubideak eta memoria historikoa garatzeko nazioarteko agendetan ezarritako erronka eta akordioetara egokitutako jarduteko esparrua argia** ezartzea da. Tokiko zein globalak diren eremuak korapilatzen diren testuinguru batean, bai batan zein bestean momentu historikoaren asaldaketak nabariak direla, atzerapenik onartzen ez duten gaiei heltzeko mekanismoak ezartzeko beharra dago.

Hainbat urtetarako esparru-dokumentu hau idazterakoan, Arabako Foru Aldundia-
ren (AFA) zereginari erreparatu zaio, baita lurraldean giza eskubideak babesteko eta sustatzeko aukera eta zailtasunei ere eta, bereziki, egoera zaurgarrien eta baztertuenean dauden pertsona eta taldeen diskriminaziorik ezari eta babesari dagokienez, lurraldean duten proiektzioari.

Hala, lehenik eta behin, politika publikoen plangintza-betebeharra, -moduak eta -edukiak oinarritu dira («giza eskubideen ikuspegia»), barne-antolamendu juridikoarekin eta nazioarteko estandarrekin bat etorriz; eta, bigarrenik, denbora-muga bat ezarri da, ekimenen diseinu eta hedapena eskura dauden benetako ahalmenen proportziozkoa izan dadin.

Zehatzago, berariaz jaso dira AFAREN printzipio-gida, toki-mailan giza eskubideak babesteko eta sustatzeko (unibertsaltasuna eta besterenezintasuna; zatiezintasuna; interdependentzia eta erlazioa; berdintasuna eta diskriminaziorik eza; parte-hartzea eta inklusioa; eta kontuak ematea).

Halaber, esku hartzeko eremuak ezarri dira, beste sail eta zuzendaritzetako programekin gainjartzeak saihesteko:

- Dokumentu markoaren prozesu parte-hartzailea;
- Giza eskubideei buruzko formakuntza: AFA barrura eta lurraldeko eragile estrategikoentzat;
- Araban giza eskubideen babesari eta sustapenari buruzko sentsibilizazioa;
- Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza;
- Giza eskubideen koordinazioa eta ikuspegia kulturartekotasunaren, berdintasunaren eta lankidetzaren arloetan;

- Arabako giza eskubideen eragileen lotura-sarea indartzea eta AFaren giza eskubideen erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, koadrilak) parte hartzea;
- Giza eskubideen barne-auditoretza;
- Arabako Memoria Historikoa berreskuratzea eta Arabako iragan hurbileko indarkeria politikoaren Arretarako Programa.

1.

Abiaburuak

Esparru-dokumentu hau Arabako Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak (AFA) Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrari 2025 urtearen hasieran egindako enkargu zuzen baten ondorioa da. Era berean, aurreko diagnostikoaren garapenaren emaitza da (*infra*, 1.4 atala), ezinbestekoa erakundearen egoera ezagutzeko.

Era berean, dokumentu honek nazioarteko araudian jasotako eskakizun eta gomen-dioei erantzuten die, eta horiek AFAk dagoeneko abian jarritako giza eskubideen politika publikoetan islatzen dira. Azkenik, labur bada ere, lurraldearen errealitatea osatzen duten faktoreetako batzuk kontuan hartuko dituen egoeraren irudikapen bat eskaintzea beharrezkoa da.

1.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA: GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA

Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratiko baten markoan, giza eskubideak zeharka txertatu behar dira politika publikoetan. Eskakizun hori ez da aukera politiko bat, baizik eta Estatuak gai horretan berretsitako Tratatuaren bidez zein 1978ko Konstituzioaren 10.2 artikuluko klausularen bidez bere gain hartutako nazioarteko konpromisoetatik datorren betebeharr juridiko bat. Botere publikoen parte den aldetik, Arabako Foru Aldundia —eskumen propioak eta autonomia politiko, administratibo eta finantzarioa dituen lurralde-gobernua den aldetik— ere betebeharr horri lotuta dago. Horrek esan nahi du bere ekintza instituzionalak giza eskubideen ikuspegia jaso behar duela, bai bere politika publikoen diseinuan, bai ezarpenean eta ebaluazioan ere.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak ekintza publikoa bideratzeko arau-esparru sendoa sortzen du. Esparru horren muina Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala da (1948)¹, 1966ko Nazioarteko Itun biak (Eskubide Zibil eta Politikoei buruzkoa eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzkoa)², halaber, giza eskubideei buruzko Nazio Batuen gainerako nazioarteko hamar itun monitorizatuak, beren eskubideak urratzeko

¹ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpenean onartua.

² Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) Ebazpenean onartua; 1976ko martxoaren 23tik indarrean; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen

arrisku berezia duten gizataldeekiko estatu-konpromisoak garatzen eta zehazten dituztenak: emakumeak, arraza-bereizkeriaren biktimak, langile migratzaileak, desgaituak, desagertutako pertsonak eta desagertze behartuaren biktimak, besteak beste³.

Arau multzo horrek jarduera publiko oro gidatu behar duten funtsezko printzipio batzuk ditu ardatz: unibertsaltasuna eta diskriminaziorik eza, eskubide guztien zatiezintasuna eta elkarrekiko mendekotasuna, kontuak ematea, progresibotasuna, gardentasuna eta eskubideen titularren parte-hartze esanguratsua (*infra* 2. atala). Printzipio horiek, gida etiko bat eskaintzeaz gain, eskubideak interpretatu eta aplikatzeko irizpide juridikoak ere eskaintzen dituzte.

Nazio Batuen sistemaz gain, giza eskubideak babesteko Europako sistemak, Europako Kontseiluaren esparruan egituratuak, funtsezko eginkizuna betetzen du. Tresna nagusia Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (GEEH) da, 1950ean onartua eta Espainiak 1979an berretsia⁴. GEEHk, eskatu daitezkeen eskubideen katalogoa onartzeaz gain, nazioarteko berme-mekanismo bat ezartzen du —Giza Eskubideen Europako Auzitegia—, eta mekanismo horren epaiak lotesleak dira estatu kideentzat. Estrasburgoko Auzitegiaren jurisprudentzia erabakigarria izan da hainbat eremutan eskubideak babesteko estandar zehatzak garatzeko (adibidez, osotasun pertsonala, adierazpen-askatasuna edo diskriminaziorik eza), eta nahitaezko interpretazio-irizpidea da botere publiko guztientzat.

Hasieran esan bezala, Espainiako ordenamendu juridikoak nazioarteko konpromiso horiek txertatzen ditu Espainiako Konstituzioaren (EK) 96. artikuluan aurreikusitako mekanismoen bidez. Espainiako Konstituzioak, berretsi ondoren, barneko balio juridikoa ematen die nazioarteko tratatuei. Horri gehitu behar zaio EK-ko 10.2 artikuluen agindua, zeinak Konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen interpretazio egokia ezartzen baitu gai horri buruzko nazioarteko tratatuekin, bai eta jarduera publiko guztietan legezkotasun-printzipioa errespetatzeko betebeharra ere (EK 9.3 art.). Beraz, giza eskubideen nazioarteko estandarrek indar lotesle osoa dute barne-antolamendu juridikoan, bai modu formalean txertatzen direlako, bai interpretazio-proiektzioa dutelako. Txertatze-bide bikoitz horrek legezkotasun-parametro bihurtzen ditu tratatuak eta haien

Nazioarteko Ituna, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) Ebazpenean onartua; 1976ko urtarrilaren 3tik indarrean.

³ Nazio Batuen giza eskubideen nazioarteko sistemaren «muin» hori osatzen duten tresna eta euren gainbegirtze-organoak hauek dira: Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1965eko abenduaren 21ean onartua; Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979ko abenduaren 18an onartua; Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Degradatzaileen aurkako Hitzarmena, Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1984ko abenduaren 10ean onetsia; Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1989ko azaroaren 20an onetsia; Langile Migratzaile Guztien eta horien Senideen Eskubideak Babesteari buruzko Nazioarteko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1990eko abenduaren 18an onetsia; Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an onetsia; Pertsona Guztiak Desagertze Behartuen Aurka Babesteko Nazioarteko Hitzarmena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 20an onetsia.

⁴ Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Erroman 1950eko azaroaren 4an onetsia Europako Kontseiluaren esparruan; 1953ko irailaren 3tik indarrean. Espainiak 1979ko urriaren 4an berretsi zuen.

doktrina- eta jurisprudentzia-garapenak, eta horiek gidatu behar dute erakunde publiko guztien ekintza, baita foru-administrazioena ere.

Giza eskubideen Nazioarteko Hitzarmenek estatuek beren administrazio-maila desberdinetan integratu eta bermatu behar dituzten estandarrak definitzen dituzte. Estatuen eta toki- eta eskualde-administrazioen artean, giza eskubideak errespetatu, babestu eta gauzatzeko betebeharrak partekatu eta osagarriak daude. Horrela, giza eskubideen urraketak eskualde edo toki mailan Estatuen edo haien erakunde edo organismoen ekintza zuzenaren, geldotasunaren edo ez-egitearen ondorioz gerta daitezke. Adierazitako hitzarmenak funtsezko erreferentzia-puntu nagusiak dira. Baina Arabako Foru Aldundiaren eskumenek lehentasunezko ildo batzuk ezartzera behartzen dute, ahalegin horretan laguntzeko esku-hartze eremu eta moduei dagokienez. Eta, horretarako, ezinbestekoa da NBERen Batzar Nagusiak 2015ean onartu zuen 2030 Agenda ere aipatzea.

Agenda hori, berez, ekintza-plan bat da, lehen mailako eta izaera planetarioko helburuen mapa bat, non 2015. eta 2030. urteen artean munduko garapen-programek izan behar dituzten printzipioak zehazten diren, eta dokumentu hau elikatzen duen beste arautresna bat. Bere xede eta helburuak Arabako lurraldeko zenbait politika publikotara egokitzeari beharrezkoa eta emankorra den elkargune baten parte da.

2030 Agendaren filosofia pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta lankidetzak gizarte, ekonomia eta ingurumen erronken erdigunean jartzean oinarritzen da. Agendak aldatuta eraldatzaileak erdietsi nahi ditu, pertsona guztien onerako izango direnak, eta «inor atzean ez uzteko» konpromisoa hartzen du. Planetari eta haren erronkei begira, gure buruari ere begiratzen diogu, gizarte anitz eta interkonektatu gisa. Hala, EBko 193 estatuek konpromisoa hartu dute hazkunde ekonomiko jasangarri eta integratzailea, gizarte-inklusioa eta ingurumenaren babesa sustatzeko, hori guztia bake- eta lankidetzaren esparru batean.

2030 Agenda Garapen Jasangarrirako 17 Helburuk (GJH)osatzen dute. Helburu horiek integratuak eta banaezinak dira, eta guztira 169 xede zehatz dituzte, 232 adierazle bidez kuantifikatuta. Pobrezia eta gosea errotik kentzea, genero-berdintasuna lortzea, energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea lortzea, klimaren aldeko ekintza sustatzea, kalitatezko hezkuntza bultzatzea edo osasunaren eta ongizatearen alde egitea dira NBEk ezarritako helburuetako batzuk, eta garapen jasangarria lortzeko beharrezkoak diren esku-hartze eremuak ordezkatzeko dituzte.

Azkenik, tokiko administrazioari eta giza eskubideei buruzko 2022ko iraileko txostean⁵, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak (NBGEGM) agerian uzten du adierazpen hutsezko konpromisoek, hau da, legezko betebeharrak ez dutenek eta, beraz, konpromiso irmorik ez dutenek, giza eskubideak betetzea oztopatzen dutela. Hori dela eta, testuak «*giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta eraginkor egiteko nazioko eta tokiko agintariek dituzten betebeharrak partekatuak eta osagarriak arautzen dituen nazioarteko*

⁵ Giza Eskubideetarako, Toki Administrazioari eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Goi Komisarioaren txostena, Giza Eskubideen Kontseiluaren aurrean aurkeztua 51. bilkura-aldian, 2022ko irailaren 12tik urriaren 7ra bitarteko 45/7 ebazpenari erantzunez.

arau-esparrua» ezartzen du, tokiko eta nazioko administrazioak gidatu beharko lituzketen printzipioen elementuak adieraziz: giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta eraginkor egiteko betebeharrak partekatu eta osagarriak. Estatuek dute giza eskubideen errespetua sustatzeko betebeharrak; agintari publikoek, tokiko administrazioek bezala, eginkizun osagarri batean hartzen dute beren gain erantzukizun hori; eta giza eskubideetan oinarritutako tokiko gobernantzaren ikuspegia, gobernantzarako esparru kontzeptual gisa, zeharka aplikatzekoa, bost elementuko zerrenda ez-oso batez osatua (infra 2. atala) abiapuntu gisa jotzen dutenak.

Laburbilduz, txostenak ondorioztatzen du prozesu instituzional sendo bat behar dela, bai formulazioari dagokionez, bai finantziario-hornikuntzari eta ahalmen exekutiboari dagokionez, bai eta erantzukizunen banaketari eta lankidetzaren instituzionalizatuari dagokionez ere. Zehazki, toki-administrazioentzat, eskakizun hauek ezartzen ditu giza eskubideen nazioarteko betebeharrak eraginkortasunez betetzeko: tokiko lege, araudi eta politika eraginkorrak eta lotesleak onartzea; betebeharrak burutzeko ekintza-planak onartzea; horretarako oinarri enpiriko bat ezartzea adierazle argiekin; tokiko mekanismoak ezartzea edo indartzea; administrazioetako langileentzako prestakuntza egokia bermatzea; eta, azkenik, diskriminazio-mota guztiei aurre egiteko programa eta ingurune egokiak garatzea, agintaritzaren zentzualki lankidetzan.

1.2. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO POLITIKA PUBLIKOEN AURREKARIAK AFAN

Nazioarteko arau-esparrua finkatu eta horren beharrezko lotura juridikoa argitu ondoren, orain AFAk gai horretan dituen lan-aurrekariak eta egungo egoera azaltzea garrantzitsua.

2020ko abenduaren 10ean (Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna), Arabako Foru Aldundiak bere lehen Giza Eskubideen Plana aurkeztu zuen. Haren helburu nagusia zen AFari eduki sistematikoa eta beharrezko egiturak ematea, 2019-2023 legealdian giza eskubideen politika publikoak bultzatzeko. AFAn giza eskubideak sustatzeko asmoz, gai horri lehentasuna emateko borondate politikoa aditzera eman zen. Hala ere, pandemiak eragindako distortsio orokorra dela eta, planean jasotako planak ere aldatu eta atzeratu egin ziren.

Edonola ere, plan hori aldeztu aurretik giza eskubideen alde egindako lan baten emaitza izan zen, eta aliantzak ehunduz joan ziren, geroagoko politiken oinarri izango zen elkartasun-estrategia sendotzen joateko. Horrela, Nazio Batuek ezarritako giza eskubideen xede eta helburuak, apurka erakundearen politika publikoetan txertatu dira, Lurralde Historiko osoan giza eskubideak eta oinarritutako askatasunak sustatzeko, babesteko eta erabat eraginkor bihurtzeko, eta pertsona guztiengana iritsiko den garapen jasangarria bilatzeko, bai Araban, bai Aldundiaren garapenerako lankidetzaren ezarri den lekuetan.

Laburbilduz, AFAk orain arte hartutako ildoak hiru ekintza ildotan labur daitezke.

Horien artean, lehenik eta behin, 2030 Agenda⁶ ezartzea nabarmentzen da. 2015eko irailean NBEko Batzar Orokorrak onartu zuenetik, Arabako Foru Aldundiak Agenda hori

⁶ Agenda eta haren 17 helburuak esteka honetan kontsulta daitezke: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>

eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) pixkanaka sartzeko erronka bere gain hartu ditu. Arabako Lurralde Historikoan, GJHein duen konpromiso globalaren barruan, AFAk **Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantza** sustatzen du⁷, honek Arabako gizarteko hainbat erakundek garapen iraunkorraren alde egiten duten lana bultzatu, lagundu eta koordinatu nahi du, Arabaren eta planetako pertsona eta herri guztien onerako ahaleginak bateratzeko, 2030 Agendaren helburuekin bat eginez.

Bigarrenik, nabarmendu behar da Arabako Lurralde Historikoan eta AFAk elkartasun eta garapenerako lankidetza politika ezartzen duen herrialdeetan giza eskubideak sustatu, errespetatu eta bermatzeko konpromisotik eratorritako ekintza-ildoak, tokiko ikuspegi globalarekin eta genero ikuspegiarekin.

Ekintza-ildo horren isla dira **AFaren V. Berdintasun Plana**⁸ sustatu izana, eta baita Kuadrillako Berdintasun Teknikari bat sartuz eta Laia Eskola abian jarri izana ere. Laia Eskola Arabako emakumeen ahalduztze-eskola gisa hasi zen ekimena da, baina, gaur egun, emakumeen ahalduztzerako sare gisa ere egituratuta dago; halaber, II. Berdintasun Barne Plana, 2025ean onartuko dena; AFA Kulturartekotasunaren Esparru Estrategiatik abiatutako **Zurumurrueen Aurkako Estrategia**⁹ abian jartzea; eta ESKUTIK 2022/2025 Elkartasun eta Lankidetza Politiken esparru dokumentua eta, Garapenerako Lankidetza Arlotik, Eskutik Mundura parte-hartze prozesua.

Eskutik Mundura prozesua Araban elkartasun eta lankidetza politika bultzatzeko 2016an hasi zen aurrerapauso erabakigarria izan zen. Garapenerako lankidetza arloko politikak berritzeko gobernantza demokratikoko prozesu parte-hartzaile zabal gisa eratu, Arabako erakundeak hainbat eragileren lankidetzarekin egindako lan parte-hartzailearen emaitza izan zen, besteak beste, Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetza Politiken esparru-dokumentua, **Eskutik 2016-2019** lehen dokumentuaren artikulazioa. Programa honen orientabideak Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko urrian onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren barruan daude. Gainera, Foru Aldundiak (H)ABIAN 2030 –Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia– ere sinatu du, eta (H)ABIAN 2030 estrategiak berak ekintza-planen, jardueren eta baliabide espezifikoaren bidez proposatutako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategiari (GEH) laguntzeko erantzukidetasunaren ardura hartu du.

ESKUTIK dokumentua, halaber, Lankidetzaren eta Elkartasunaren otsailaren 15eko 3/2024 Legearen funtsezko osagaiekin bat dator; besteak beste, giza eskubideen eta justizia globalaren esparruan gizarte aske, demokratiko, baketsu eta inklusiboak sustatzera bideratuta daude, euskal gizartearen eta haren erakundearen inplikazioa helburu horien alde bultzatuz.

AFAk **nazioarteko elkartasunarekin eta giza eskubideak sustatzearekin** zuen konpromisoa bi lan- eta ekintza-ildo argitan kontzentratu zen: lankidetza eta hezkuntza, eta hor-

⁷ Informazio gehiagorako: <https://ods.araba.eus/eu/>.

⁸ Planaren testu osoa: <https://irekia.araba.eus/documents/2908004/11181245/V+Berdintasunerako+Foru+-Plana-eus.pdf/2a089ffe-f0df-734f-2cd4-47fd96d792bb?t=1673519564360>

⁹ Informazio gehiagorako: <https://web.araba.eus/eu/kulturartekotasuna/zurumurrueen-aurkako-estrategia>.

tik eratorritako Lankidetzarako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako¹⁰ (GEH) laguntza-deialdiak. Deialdi horiek etengabe sustatu dute giza eskubideen ikuspegia eranstea, eta, era berean, zuzeneko lankidetzako hitzarmen eta proiektuek giza eskubideen printzipio eta arauak lehenestea eta gauzatzea lortu nahi izan zen, egoera zaurgarrienean dauden herritarrengan arreta berezia jarritz: emakumeak eta neskak; indarkeriaren edo salerosketaren biktimak; aniztasun funtzionala duten pertsonak; muturreko pobrezian dauden pertsonak; lekualdatuak eta errefuxiatuak; herri indigenak; eta giza eskubideen defendatzaileak.

Prozesu horren guztiaren elementu nabarmenetako bat 1996an AFA Euskal Fondoa - Euskal Tokiko Erakunde Laguntzaileen Elkartean¹¹ sartu izan zen, AFAk lankidetzaren deszentralizatua koordinatu eta indartzeko joera agerian utziz. Ildo beretik, Gasteizko Udalarekin koordinazio eta lan harreman iraunkorra mantentzen da.

Beste elementu garrantzitsu bat Gasteizko Udalarekin batera **Larrialdietarako Arabako Funtza**¹² (LAF) martxan jartzea eta sendotzea izan da. Mekanismo horrek Hego globaleko herrialdeei eragiten dieten larrialdi-egoeretan laguntza ematea ahalbidetzen du, Araban ezarritako eta esku-hartzeko gaitasun nabaria duten erakundeei laguntza ekonomikoa emanez. Laguntza hori larrialdia gertatzen den herrialdera bideratzen da. Bizkaiko Foru Aldundiak ekimenaren bertsio propioa onartzeko prozesuan egotea ekimen honen martxa onaren adierazgarri da.

Nabarmentzekoa da, halaber, **MAP Arabako Giza Eskubideen Defendatzaileen Intzidentzia eta Babeserako Mekanismoa** abian jarri izana. MAParen esparruko ekintzatzat jotzen dira Arabako lankidetzarekin lotutako esku-hartzeen esparruan giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesa eta egikaritzea bakean eta modu baketsuan sustatzen eta bultzatzen duen pertsona ororen eraginarekin eta/edo babesarekin zerikusia dutenak.

Azkenik, hirugarren ekintza-ildo bezala, lankidetzaren jardueraz gain, azken urteetan (2017/2020) AFAk Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideak sustatzeko politiketan duen inplikazioa areagotu egin da, Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordean aktiboki parte hartuz.

Edonola ere, gogoratu behar da aurreko legegaldian (2019-2023) Covid-19 pandemiak izandako eragina eta, hala ere, Arabako Foru Aldundiak, eskubide horiek krisi-garaian bertan behera uztea aukera politikoa ez zela kontuan hartuta, giza eskubideen aldeko konpromisoa berriro ahal izateko oztopotzat ez zuela hartu.

Testuinguru horretan, 2023-2027 legegintzaldirako Gobernu Plan berria bere historiari elikatzen da, eta giza eskubideen aldeko politika aurrekariak indartu nahi ditu, Lurraldean aurreko legegintzaldiko programei jarraipena emanez. Gobernu Plan hau 5 ardatz nagusitan egituratuta dago:

¹⁰ Informazioa gehiagorako: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/gizarte-eraldaketarako-hezkuntzako-proiektuetarako-dirulaguntza-deialdia>.

¹¹ Informazio gehiagorako: <https://euskalfondoa.eus/>.

¹² Informazio gehiagorako: <https://web.araba.eus/eu/lankidetzaren-arabako-larrialdietarako-funtza>.

- ARABA LEHIATZAILEA ETA BERRITZAILEA
- ARABA KOHESIONATUA ETA INKLUSIBOA
- ARABA BERDE ETA PLANETAREKIN KONPROMETITUA
- ARABA OREKATUA, POLIZENTRIKOA ETA ANITZA
- ARABA ONDO GOBERNATUTA

Ardatz horiek guztiak AFAk lortu nahi duen lurraldearen etorkizuneko ikuspegia- rekin bat datoz, eta erakundeak Arabako lurraldearen eta bertako biztanleen aurrera- pen eta ongizate iraunkorrarekin duen konpromiso hautsiezina islatzen dute. Giza ga- rapen iraunkorraren indize altuenak eta komunitate sendo eta kohesionatua lortu nahi dituen Lurraldea. Lehentasunezko jarduera bakoitza sail batek koordinatzen du, Gara- pen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) eta Nazio Batuen 2030 Agenda betetzera bide- ratuta.

Planak, bere bigarren ardatzean (**Araba Kohesionatua eta Inklusiboa**), «*Herritarrak Memoria Historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta Giza Eskubideen kultura demokrati- koan sakontzea*» helburutzat hartuta, argi ezartzen du «*Pertsona guztien giza eskubideen defentsak, salbuespenik gabe, gizarte demokratiko ororen zutabe izan behar du eta edozein ekintza politikoren oinarritzko printzipioa izan behar du ekintza instituzionalaren zeharkako ardatz gisa*», horretarako, Foru Aldundia «*bere politika publiko guztietan Giza Eskubideen ikuspegia sustatzean oinarritu behar da*»¹³. Giza eskubideen arloan egingo den lanaz gain, Foru Aldundiak dokumentu horretan «*memoria historikoa berreskuratzeko eta indarke- ria bidegabearen biktimak aitortzeko politika aktiboa*» garatzeko konpromisoa hartzen du, horretarako, besteak beste, «*biktimen egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubi- deak bermatu nahian, Martxoaren 3ko Oroimenezko proiektuaren amaiera gisa*» bultzatuko ditu¹⁴.

1.3. ARABAKO LURRALDEAREN MAPA HISTORIKOA

Azaldutako lan eta plangintza aurrekariak Arabako Lurralde Historikoaren errealtate jakin bati egin behar diote aurre. Izan ere, hasieran planteatu den bezala, dokumentu ho- nen oinarriak Lurraldeko arazoaren errealtateari zuzendu nahi die begirada. Komenigarria da «mapa» batetik abiatzea, benetako arazoetara hurbiltzea, gorroto-diskurtsorik gabeko kulturarteko Araba inklusiboaren bidean kokatzeko, eta kontuan hartzeko, batetik, gaur egungo ekintzak zein baldintza errealetan txertatu behar diren, eta, bestetik, etorkizuneko belaunaldiekiko erantzunkidetasuna. Horretarako, zenbait ikuspegi konbinatuko ditugu (taldeka, egiturazko elementuka eta faktore demografikoka), diagnostiko zehatzagoa aur- keztu aurreko lehen hurbilketa gisa (*infra* 1.4. atala).

¹³ Arabako Foru Aldundia (2024). Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Plana, Arabako Lurralde Historikoaren Aldzkari Ofiziala, 77., 33 orr.

¹⁴ *Ibid.*

1.3.1. Taldekako ikuspegia

Erreferentzia-itsasargiak kulturen arteko bizikidetzaz, berdintasuna, inklusioa, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta hainbat arrazoirengatik mehatxatuta dauden talde espezifikoaren babesa sustatzen dituen Arabako gizartearen beharrak dira.

Arabako lurraldean, diskriminazio edo gehiegikeria egoerek eta gorroto-diskurtsoek hor jarraitzen dute, horiek desagerrarazteko ahaleginak egin arren. Gutxiengo erlijioso edo etnikoetako pertsonak (ijitoak, komunitate musulmana, migratzaileak, errefuxiatuak, asilo-eskatzaileak eta laguntza humanitarioaren onuradunak ...), LGTBIQ+ pertsonak, desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonak, adinekoak edo haurrek gainerakoaren eskubide bera dute gizarte kohesionatu eta errespetuzko batean bizitzeko, edozein egoeratan babestuko dituen gizarte batean. Ezin dugu ahaztu, halaber, gizarte-bazterketa aipatutako diskriminazio askoren zeharkako faktorea dela, baina haratago doa, gure gizarteko talde esanguratsuei ere eragiten die. Azkenik, begitartean eduki behar dira lehen aipatutako kolektibo gehienei modu osagarrian edo, batzuetan, independentean egokitzen zaizkien zeharkako bi elementu: emakumearen diskriminazioa eta gaur egungo gizarte digitalen eta post-industrialen enfrentamendu eta polarizazio ideologikoko faktoreak.

Arabako Foru Aldundiak Arabako gizartean talde baztertuenei eragiten bereziki eragiten dieten giza eskubideen, desberdintasunen eta pobreziaren gabezia nagusiei aurre egiteko programak eta jarduerak bultzatu nahi ditu. Ekintza horiek desberdintasuna eta bereizkeria sortzen dituzten faktore ezberdinak agerian uzten dituen **ikuspegi intersektionala** izango dute, gorrotozko eta arraza-bereizkeria eta xenofobia diskurtsoen eragina dela-eta arrazismoaren aurkako ikuspegiari arreta berezia eskainiko diote. Ezberdintasun horiek zuzentzeko berariazko neurriak sustatuko dira, ezberdintasun horiek definitzen dituzten ezaugarrien arabera: sexua/generoa, genero-identitatea edo sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, arrazializazioa, erlijioa, adina, jatorria, migrazioa edo beste batzuk.

1.3.2. Ikuspegi estrukturalagoa: gizarte garaikidearen konplexutasuna

Horri dagokionez, Politika Publikoen Koherentziari buruzko Txostenak¹⁵ ohartarazten duen bezala, kontuan hartu beharreko lau faktore daudela kontuan hartzea garrantzitsua da:

- *Eraldatze prozesuen abiadura*. Teknologiarekin, informazioaren ekoizpenarekin eta eztabaida publikoan duen eraginarekin lotutako prozesuen abiadura handitzeak aukerak eta mehatxuak sortzen ditu. Ildo horretan, politika publikoen planifikazioak eta aurreratzeak garrantzi berezia hartzen dute.
- *Interdependentzia*. Ekonomia, politika, kultura eta komunikazio faktoreen arteko erlazioak espazio-mugak gainditzen ditu, fisikoki urrun dauden baina digitalki konektatuta

¹⁵ Arabako Foru Aldundia (2021). Informe de Coherencia de Políticas Públicas en la Dirección de Igualdad y Derechos Humanos. Una Apuesta por la Transversalidad.

dauden testuinguruak lotuz. Horrek eragina du fenomeno klimatikoan (ingurumen-hondamendiak), osasun-fenomenoen (Covid-19 pandemia), fenomeno teknologikoen (informazio-hedapena), fenomeno politikoen (ultraeskuinaren igoera) eta fenomeno demografikoen (Mediterraneokoa bezalako ibilbideen bidezko migrazioak) hedapen-gaitasunean. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela estrategia «glokal» baten beharra kontuan hartzen duten terminoetan pentsatzea, alegia, eremu desberdinen arteko interdependentzia kontuan hartzen duten terminoetan pentsatzea.

- *Konplexutasuna*. Aurreko puntutik abiatuta, bai faktoreen arteko interdependentziak, zein faktore horietako bakoitzean aldagai ugari egoteak iradokitzen du erantzuna konplexutasunari aurre egiteko gai den diziplina anitzeko prisma batean oinarrituta artikulatu behar dela.
- *Estruktura politikoen ahultzea eta ziurgabetasuna*. Egiturak zein balioak eta politika egiteko moduak zalantzan jartzeak, diskurtso mailan zein maila praktikoan, eskubi-deen eta askatasunen gainbehera forma hartzen ari diren espazioak gaitu ditu. Hori dela eta, elkartasuna eta lankidetzaren sustatzea are garrantzitsuagoa da, eta ikuspegi berrietuek aukera gehiago izango dituzte arlo horretan.

1.3.3. Lurralde eta demografia ikuspegia

Alderdi kuantitatiboenatik begiratuta, erronka demografikoak daude, piramidearen egiturari lotutakoak (zahartze progresioa eta jaiotza-tasa txikia) eta biztanleriaren banaketari lotutakoak (landa eremuen despopulazioa). Bi gai horiek elkarrekin harremanetan jarritz, biztanleriaren zahartzeak eragin handiagoa izan dezake biztanle gutxien dituzten lurraldeetan, proportzionaltasun estatistikoagatik eta biztanleria hiriguneetara lekualdatzeko dinamikagatik. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Arabako biztanleen hiru laurden hiriburuan bizi dira. Gainerako herri guztiak landa-eremukoak ez diren arren, ezinbestekoa da proportzio hori esanguratsua dela kontuan hartzea aztertzen ari garen errealitatea irudikatzen duen orduan.

Biztanleria osoaren ehunekoa, Kuadrillaren arabera

Kuadrilla	Pisu erlatiboa	N
Añana	%2,8	9.596
Aiaraldea	%10,1	34.267
Kanpezu-Arabako Mendialdea	%0,9	3.141
Arabako Errioxa	%3,3	11.270
Arabako lautada	%3,8	12.710
Gorbeialdea	%3	10.203
Vitoria-Gasteiz	%76	257.407
Guztizkoa	%100	338.594

Iturria: Ikuspegi. 97. panoramika - Jatorri atzerriarrekoko biztanleria EAEko Eskualde eta Kuadrilletan, 2024.

Taulan, 2024ko urtarrilaren 1ean, Kuadrilla bakoitzak populazio-banaketan duen pisu erlatiboa ageri da. Besteak beste, landa eremuen despopulazio-fenomenoa ikus daiteke. Bestalde, sexuaren arabera banaketari dagokionez, 166.667 (%49) gizonetzkoak dira eta 171.927 (%51) emakumezkoak.

Eustaten datuek demografiari buruzko xehetasunak ematen dituzte, arlo sozioekonomikoari buruzko informazioa besteak beste. Arabako 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa %49koa da. Okupazio-tasari dagokionez, Araba osoko guztizkoa %53 da, %57 gizonentzat eta %49 emakumeentzat. 2024ko langabezia-tasa baliokidea %7,7koa izan zen Araban.

Landa-eremuen despopulazioaren garrantzia adierazi denez, funtsezkoa da sektore ekonomikoak ere zehaztea. 16 urte edo gehiagoko Arabako biztanleria okupatua, 152.100 pertsona guztira, honela banatzen da: nekazaritza, 2.000 (%1,3); industria, 40.000 (%26,4); eraikuntza, 6.300 (%4,1); eta zerbitzuak, 102.300 (%67,2).

Azkenik, baliagarria da populazioaren proportzioa migrazioarekin duen harremanaren arabera ezagutzea, sexuaren arabera banatuta. Bigarren taulan ikus daitekeenez, biztanleria osoaren proportzioak simetria lortzen badu ere (%49 gizonak eta %51 emakumeak), biztanleria sedentarioaren kasuan alderantzikatu egiten da; biztanleria etorkinaren artean, berriz, joera orokorra errepikatzen da, baina aldea zertxobait handiagoa da: gizonak %48 eta emakumeak %52.

Arabako biztanleria, migrazioarekiko harremanaren eta sexuaren arabera

Biztanleria	Gutzizkoa	Gizonak	Emakumeak
Sedentarioak	145.486	74.288	71.198
Barne-migratzaileak	78.100	37.021	41.079
Etorkinak	111.560	53.160	58.400
Gutzizkoa	335.146	164.469	170.677

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua.

Bestalde, atzeritar jatorriko biztanleen (migratzaileak) banaketari dagokionez, lehenik eta behin ikus daiteke atzeritar jatorriko pertsonak %13,4 direla, goranzko joera berres-ten delarik¹⁶. Era berean, proportzioa –%48 gizonak eta %52 emakumeak– kasu honetan ere betetzen dela ikus daiteke, atzeritar jatorriko pertsonen kolektiboaren barruan. Balio absolutuei erreparatuta, atzeritar jatorriko 1.779 emakume gehiago daude gizonak baino, eta, beraz, pentsa daiteke, datu horietan konfiantza izanda, biztanleria horren proportzio handiago bat zaurgarritasun handiagoko egoeretan egon daitekeela.

¹⁶ 2018an, atzeritar jatorriko biztanleak % 8,5 ziren; 2012an, % 10,9; eta 2019an, % 10,9, egonkor mantendu zelarik. Oleaga, J., Fouassier, M., Ruiz I., Martí, M., Fullaondo, A., Sancosmed, I., Moreno, G. (2019). Ikuspegi. Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Álava, 56 orr.

Arabako biztanleria migratzailea sexuaren arabera

Biztanleria	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak
Migratzaileak	44.943	21.582	23.361
Bertakoak	290.203	142.887	147.046
Guztizkoa	335.146	164.469	170.677

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua.

Garrantzitsua da atzerritar jatorriko biztanleriaren kuantifikazioaren inguruabar konplexuak kontuan hartzea. Iturri ofizialek ez dute beti islatzen atzerritar jatorriko pertsonen biztanleria-errealitatea; izan ere, hainbat egoera eta baldintza direla-eta (legezko eskakizunak, behar materialak, lan-eskakizunak, besteak beste), baliteke zentsuak eta erroldak ez erregistratzea lurraldean bizi diren pertsonak, eta, batzuetan, lurraldean bizi ez diren pertsonak erregistratzea.

Halaber, jakina da emakume migratzaileen ikusgaitasuna hobetzeko dagoen arloa dela¹⁷, eta, horrek zailtasun faktore gehigarri bat suposatzen duela. Kolektibo hau, bereziki zaugarria izanik, azpiordezkatuta agertzen da. Hala ere, muga guztiak gorabehera, erreferentzia horiek errealitatetik nahiko hurbil daude gaiari buruzko irudi informatu bat osatzeko.

1.3.4. Sintesi bat

Arabaren erronkak Europako gure kultura-zirkuluko gizarte moderno baten berezkoak dira, baina, aldi berean, hainbat eragilerekin erantzukizunak partekatzen dituen erakunde-arku baten barruan kokatutako lurralde jakin batenak ere bai. Adierazitako diagnostikoan, beraz, erronka nagusiak bistaratzea besterik ez da bilatzen, ondoren, beharrezko inplikazio-maila eta gauzatu beharko litzatekeen ahalegin zehatza eta planifikagarria identifikatzeko, betiere Foru Aldundiaren egiturara, ahalmenetara eta indarguneetara modu arduratsu eta proportzionatuan egokituta.

1.4. DIAGNOSTIKOA

Garapenaren lehen fase baten baitan, dokumentu hau prestatzeko prozesua Erakundearen egungo egoeraren diagnostikotik abiatu zen. Eraitza azterketa-diagnostiko batean zehaztu zen, eta haren laburpenak dokumentu honen koherentzia erakusten du, AFaren barnera egindako begirada baten oinarrian.

¹⁷ OIM (2024). Explorando la feminización de la migración con perspectiva de género, eskuragarri: <https://lac.iom.int/sites/g/files/tmzbd11446/files/documents/2024-06/explorando-la-feminizacion-de-la-migracion-con-perspectiva-de-genero-1.pdf>.

Egitura. Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza Sailaren mende dago, eta bi zerbitzutan banatzen da: Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzua (BLKZ), zerbitzuburu bat, bi berdintasun-teknikari, bi lankidetzaren-teknikari, Kulturartekotasun teknikari bat eta administrazio-arloaz arduratzen den pertsona bat dituen, eta Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren Zerbitzua, oraingoz esleitutako teknikaririk ez duena, eta zuzendariak berak kudeatzen duena, BLKZko talde teknikoaren laguntzarekin. **Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren** arloak, beraz, teknikari-langile propioak behar ditu, gero eta handiagoa den jarduera-programari erantzun ahal izateko eta horri eutsiko dion egitura sendoa sortzeko. (Dokumentu hau idazteko unean, behar diren kudeaketak egiten ari dira hasierako egituratzea zehazteko, lanaldi osoko plaza espezializatu bat sortuz).

Metodologia. Diagnostiko hau erakundearen egunerokoaren baldintzak eta beharrak ondo ezagutzen dituzten funtsezko eragile instituzionalei egindako elkarriketa egituratuaren bidez bildutako informazioan oinarritu da. Horri esker, gaur egun dauden indarguturak eta hobekuntza-eremuak identifikatu ahal izan dira, eta horiek oinarri sendoa eskaintzen dute ibilbide-orri funtzional, praktikoa eta funtsatu baten prestaketarako.

Helburuak. Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren 2025eko programa espezifikoaren hasierako aurrekontua 367.000 €-koa da. Hau, AFaren Gobernu Planaren arabera, helburu nagusi baten mende dago: «herritarrak Memoria Historikoaren arloan sentsibilizatzea eta Giza Eskubideen kultura demokratikoan sakontzea» (02.9).

Horretarako, Planak berak jasotzen duen bezala, berariaz jorratzen dira «*pertsona guztien giza eskubideen defentsa salbuespenik gabe*», «*giza eskubideen ikuspegia bultzatzea politika publiko guztietan*», «*giza eskubideen arloko trebakuntza eta prestakuntza*», «*kultura demokratikoaren sakontzea*» eta «*memoria historikoa berreskuratzeko eta indarkeria bidegabearen biktimak aitortzeko politika aktiboa*», horretarako «*biktimek egia, justizia eta erreparazioarako dituzten eskubideak bermatzen saiatuz*», eta «*berreskurapena, hedapena eta transmisioa*» bultzatuz, «*Martxoaren 3ko Memorialaren proiektuaren borobiltze gisa*».

Arloak. Egitura horren isla gisa, hiru arloak egituratzen dute Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren (BLKZ) eguneroko jarduna. Arlo horietako bakoitzak bere erreferentziazko ibilbide-orriak ditu. **Berdintasunaren** arloak Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana (2022-2026) du bere oinarritzko dokumentu gisa, Araban berdintasunean aurrera egiteko jarraibideak eta neurriak ezartzen dituen. **Garapenerako Lankidetzaren** arloa, funtsean, *Eskutik*-en esparruan oinarritzen da, lankidetzaren deszentralizatua eta parte-hartzailea sustatzen duena, besteak beste honako tresnekin: Eraldaketarako Tresna Berria – ETB, landa-eremuan ekonomia solidarioa sustatzeko; eta Arabako Larrialdietarako Funtza – ALF, larrialdi-egoeretan esku hartzeko gaitasuna duten elkartei berehalako laguntza ekonomikoa emateko. **Kulturartekotasunaren** arloa Aniztasuna Kudeatzeko Estrategian 2021-2024 oinarritzen da nagusiki, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzen duena, besteak beste honako proiektuen bidez: ZAS! – Zurrumurruen Aurkako Sarea, Aniztasunaz Blai Blai eta kulturartekotasun-politikei buruzko ikerketaren sustapena (Ikuspegi).

Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren arlorako, antzemandako hutsune garrantzitsu bat betez, esparru-dokumentu honek egituratuko ditu abian dauden lanak (besteak beste, Martxoaren 3ko Fundazioari dagozkionak; nazioartean proiektatzen diren ekimenak, hala nola Zaporeak eta Aita Mari, eta abar), eta horiek osatuko ditu 2026-2028 aldirako erreferentziazko marko koherente batean.

2. Printzipio gidariak

Dagoeneko azaldu den diagnostiko batetik abiatzen gara. Hala ere, garatu beharreko helburu edo ekintza zehatzak adierazi aurretik, agerikoa da giza eskubideen arloko lan oro, esparru-dokumentu hau bera ere, printzipio gidari, unibertsal eta orokorrean onartutakoe-tan oinarritu behar dela, zeinak gizarte-antolamendua eta bizikidetzako elkarrekiko erant-zukizunak ulertzeko modu bat azaltzen eta adierazten duten, maila guztietan. Printzipio horiek lan-esparrua prestatzen dute, jarduteko modua (*modus operandi*), Arabako Foru Al-dundia giza eskubideen aldeko lan-korrante orokor unibertsalean agente bat gehiago be-zala kokatuko duena. Printzipioek jarduteko modu unibertsal bat islatzen dute, planeta-mailan arlo horretako eragile guztiak batzen dituen, eta ondoren, hurrengo ataletan, Arabako Lurralde Historikoan lurreratuko dena, bere berezitasunen arabera.

Maila substantiboagoan (2.1 eta 2.2 atalak), printzipio hauek hartu dira kontuan espa-rru-dokumentu hau eraikitzeko: giza eskubideen zatiezintasuna, interdependentzia, uniber-tsaltasuna, besterenezintasuna eta betetze progresiboa. Maila operatiboagoan (2.3. eta 2.4. atalak), lidergoaren, subsidiarotasunaren, koordinazioaren, gardentasunaren, parte-hartzea-ren eta kontuak ematearen printzipioak bete beharko dira. Azkenik (2.5. atala), itxierako printzipio orokor bat dago, ondoren adieraziko diren ekintza-ildoan azpian dagoen lehenta-sunezko jarduera-ildo komun bat erakusten duena, eta horrela, unibertsalaren eta partikula-rraren arteko lan-sintesia osatzen hasten da Arabako Lurralde Historikoan.

2.1. ZATIEZINTASUNA ETA INTERDEPENDENTZIA

Zatiezintasunaren printzipioan oinarrituta, giza eskubideak ezin dira elementu isolatu edo bereizi gisa ulertu edo hartu; aitzitik, multzo gisa ulertu behar dira, non guztiek be-reizketarik gabe arreta bera merezi duten. Horrela, eskubide jakin batzuk ezin dira beste batzuen kaltetan babestu eta bermatu; aitzitik, ikuspegi integral bat hartu behar da giza eskubideen hobekuntzarako, esparru guztietan aurrerapena bilatuz. Ez dira onargarriak «nahieran» hautatutako giza eskubideak: guztiak serio hartu behar dira, eta horietako ba-tzuen babesa ezin da baliatu, iruzurrez, beste batzuk urratzeko, ezta haien artean faltsuki ezarritako lehentasunek inolako ez-betetzerik eragin ere.

Ildo beretik, giza eskubideen kultura interdependentzia edo elkarren mendekotasuna-ren printzipioak giatzen du, kontuan hartuta eskubide horiek elkarri lotuta daudela, eta,

beraz, eskubide zehatz baten errespetuak beste guztien errespetua ere eskatzen duela. Ondorioz, eskubide baten urraketak gainerako eskubideak arriskuan jartzen ditu.

Beraz, giza eskubideak zatiezinak eta elkarren mendekoak dira; izan ere, eskubide bakoitzak beste eskubide batzuk dakartza berekin, eta, aldi berean, eskubide horien mende dago. Nazioarteko komunitateak giza eskubideen kontzeptu integrala 1993an Vienan egindako Giza Eskubideen Munduko Konferentzian berretsi zuen:

«Giza eskubide guztiak unibertsalak, zatiezinak eta elkarren mendekoak dira, eta elkarri lotuta daude. Nazioarteko komunitateak giza eskubideak modu globalean eta era justu eta ekitatiboan tratatu behar ditu, berdintasunez eta denei pisu bera emanez. Kontuan hartu behar da nazio- eta eskualde-berezitasunen garrantzia, bai eta historia-, kultura- eta erlijio-ondare anitzena ere, baina estatuak giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute, beren sistema politiko, ekonomiko eta kulturalak edozein direla ere»¹⁸.

2.2. GIZA ESKUBIDEEN UNIBERTSALTASUNA, BESTERENEZINTASUNA ETA BETETZE PROGRESIBOA

Esparru-dokumentu honek giza eskubideen unibertsaltasunaren printzipioa ere hartzen du kontuan, eskubide hauek pertsona guztiei baitagozkie, salbuespenik gabe. Giza eskubideak unibertsalak dira, gizaki ororen duintasunean oinarritzen direlako, arraza, kolorea, sexua, jatorri etnikoa edo soziala, erlijioa, hizkuntza, nazionalitatea, adina, sexu-orientazioa, desgaitasuna edo beste edozein ezaugarri bereizgarrien arabera baldintzatu gabe. Estatu eta herri guztiek onartzen dituztenez, berdin eta bereizkeriarik gabe aplikatzen zaizkie pertsona guztiei, eta berdinak dira pertsona guztientzat leku guztietan.

Giza eskubideak pertsona guztiei berezkoak zaizkie, salbuespenik gabe, pertsona izate hutsagatik, pertsonaren duintasunetik bertatik eratortzen diren heinean. Indarrean daude edozein sistema juridikotan, maila nazionalean aitortza formalik izan gabe ere. Hori dela eta, giza eskubideak besterenezinak dira: ezin da inor bere giza eskubideez gabetu, argi eta garbi definitutako eta justifikatutako legezko inguruabarretan izan ezik. Ezin da pertsona bat bera ere eskubideen titular legitimoen esparrutik kanpo utzi, ez eta haren eskubide jakin batzuetatik ere, bidegabeki edo arbitrarioki.

Giza eskubideak progresiboki bermatu behar dira: hau da, gobernuek unean-unean duten potentzialaren eta baliabideen arabera edukia emateko ahalegina egin behar dute, betiere gogobetetze-estandarrak pixkanaka eta etengabe handitzeko helburuarekin. Printzipioa ezin da ez-betetzea justifikatzeko bide gisa ulertu, betetze-estandarrak etengabe hobetzeko betebeharrak gisa baizik, finkatutako egoeretan atzera ez egiteko berme gehigarriarekin. Eskubideak progresiboki gauzatzeko printzipioaren oinarria, gobernuek,

¹⁸ GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO MUNDUKO KONFERENTZIA, Viena, 1993, Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa. 5. §.

Estatuaren baliabide materialen arabera, eskubide horiek ahalik eta gehien gauzatzeko bidean pixkanaka eta etengabe aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak ziurtatzeko betebeharrak dinamikoa dutela da.

2.3. LIDERGOA, SUBSIDIARIOTASUNA ETA KOORDINAZIOA

Giza eskubideen kultura bat egiteko lan kolektiboa da. Nazioarteko tratatuek ezartzen dituzten obligazioak partekatutako eta osagarriak diren betebeharrak sortzen dituzte eskubide horien babesari dagokionez. Eragile askok hartu behar dute beren gain esku-bide-estandarrak sustatzeko eta betetzen direla zaintzeko ardura hori. Testuinguru horretan, politika publikoek trakzio- eta bultzada-motor gisa jardun behar dute. Estandar unibertsalak hartzen dituzte, eta beren lurralde-eremuan bideratzen dituzte, beren komunitatearekiko erantzukizun-bokazioz eta nazioarteko komunitatearekiko erantzunkidetasun bokazioz.

Botere publikoek giza eskubideen planak (esparru-dokumentu hau kasu) gidatzeko, lantzeko, eztabaidatzeko, onartzeko eta haien jarraipena eta berritzea bermatzeko betebeharra dute, baita plan horiek txertatzeko ere. Gizarte demokratiko batean, giza eskubideen kultura hedatzeko lana, sektore publikoaren erantzukizun eksklusiboa izan gabe, bere eskumen garrantzitsuenetako bat da. Hala ere, lidergo hori gizarte-ekimenarekiko errespetuarekin bateratu behar da.

Gobernua –eta, oro har, erakundeak– ez dira esku-hartze primarioko eragileak: ez dute ahalmenik plan jakin baten helburuak –giza eskubideena, adibidez– bere osotasunean operatibo bihurtzeko, ez bada gizarte-eragileen bidez –eta haien konplizitatearekin– edo gizarte zibilaren indarrak aktibatuz. Gobernuaren jardura nagusia, beraz, azpiegitura sortzea, baliabideak antolatzea eta ekimenak gidatzea da, baina arretaz, koordinatuta eta errespetuz, gizarte-eragileekin ekintza bateratua bermatzeko. Esparru-dokumentu honek, hain zuzen ere, bokazio hori du, eta helburu horietara zuzentzen da.

Giza eskubideak sistematikoki bultzatzeko erakunde-esparru bat eratzeko, ezinbestekoa da gizarte zibilaren eragileak, eta bereziki GKEak, kontuan hartzea; izan ere haien zaintza eta monitorizazio-lanik gabe, galdu egingo litzateke beharrezko bizitasuna eta prebentzio tentsioa. Lidergo instituzionala jardura zibilaren ahalbidetzailea eta osagarria da. Erakunde publikoei dagokie esku hartzeko programak eta tresnak gidatzea eta zehaztea, bereziki gizarte-ekimenetik betetzen ez diren premien kasuan. Gizarte-ekimenak helburuak bermatzen dituen kasuetan, jardura instituzionalak gizarte-praxia errespetatu beharko du, bikoiztasun disfuntzionalak saihestuz, baina betebeharrak publikoak alde batera utzi gabe. Hala ere, jardura publiko gehienetarako aldarrikatzen den subsidiariotasun hori espezializazio-printzipioarekin osatu behar da, premia espezifikoen kasuetarako.

Jardun instituzionala, aldi berean, subsidiariotasun- eta koordinazio-printzipioaren mende egon behar da. Beste maila instituzional batzuk (Udalak, Kuadrillak, Eusko Jaurlaritza...) jada giza eskubideak sustatzeko jardura zehatzak gauzatzen ari diren eremuetan, Foru Aldundiari dagokio lurraldean jardura koordinatua zaintzea, eragile guztien zerbi-

tzura jarritz, bikoiztasunak saihesteko eta baliabideen inbertsiorik onena eraginkortasunik handienarekin bermatzeko.

AFA-ren giza eskubideen esparru-dokumentuak, horrela, funtsezko rol bat betetzen du, esparru instituzionalaren eta jardun zibilaren ardatz egituratzaile izan nahi du, eragile guztien konpromisoaren eta erantzunkidetasunaren ideia sendotuz. Koordinazio-tresna bat da, baina baita giza eskubideen aldeko eragileen nazioarteko sarearekin komunikatzeko kanal bat ere, jardunbide egokien elkartrukea sendotzen duena, bai barrura begira, bai kanpora begira. Era berean, dokumentu honen bidez, AFA sektore kritikoetan gehien inplikaturik dauden gizarteko segmentuen parte-hartze konprometitu eta interpelatzaileenako ate bihurtzen da. Lankidetzat leial, baina kritiko batek, asko indartuko du erakundeak eta gizarte zibileko kideek giza eskubideen arloan ezarritako erronkekin duten lotura, sinesgarritasuna, eraginkortasuna eta identifikazioa.

2.4. GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA KONTUAK EMATEA

Gizarte-ekimenari adi dagoen plan koordinatu bat gardena eta parte-hartzailea izango da «edo ez da izango». Gardena, demokraziaren aginduz, eta ondasun publikoaren kudeaketa eredugarria bermatzeko. Eta parte-hartzailea, ezin delako elkarlanean aritzea nahi izan eta jarduera publikoa *Diktat* edo agindu autoritario bertikal gisa ulertu, tokian bertan gauzatzeko gaitasunak eta beharrak behar bezala kontuan hartzen ez dituenak.

Gardentasunak eta parte-hartzeak kontuak ematea eskatzen dute, inbertsio publikoaren argitasunaren berme gisa, gastuaren oinarri demokratiko gisa eta inbertsio horren kontrola eta hobekuntza sustatzeko funtsezko elementu gisa. Horrek guztiak, gainera, eragileen parte-hartze handiagoa eta hobeak sustatzen du, eta, ondorioz, bikaintasuneko politika publiko baterako ekarpen eta proposamen egokiagoak eta neurtuagoak ahalbidetzen ditu. Horrela, esparru-dokumentu honen indarraldiko urte bakoitzerako Urteko Plan Operatibo (UPO) bat definituko da, lehentasuneko jardura nagusiak eta horiei esleitutako aurrekontua jasoko dituenak.

2.5. KOLEKTIBO ZAURGARRIENAGANAKO BEGIRADA LEHENETSI

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren konpromiso nagusia «Inor atzean ez uztea» da. Sinbolikoki, diskriminazioari eta gero eta handiagoak diren desberdintasunei aurre egiteko helburua adierazten du, bai eta horren funtsezko kausei aurre egiteko ere, erronka sozial, ekonomiko eta ingurumeneko enpenean pertsonak jarritz, bereziki zaurgarriak: LGTBQ+ pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak, migratzaileak, asilo-bilatzaileak eta errefuxiatuak, inoren kargura ez dauden haur eta nerabe migratzaileez gain, besteak beste.

AFAren gaur egungo eskumen-esparrua kontuan hartuta, dokumentu honek filosofia bera hartzen du oinarri Arabako lurralde-eremuan giza eskubideak sustatu eta bermatzeko orduan, kolektibo zaurgarrienei lehentasuna emanez.

Giza eskubideen babesaren arloan, funtsezkoa da berdintasunaren eta zaurgarritasunaren nozioen artean dagoen lotura kontuan hartzea, pertsona zaurgarrienenak beren askatasun-espazioetan izan ditzaketen urraketei aurre egiteko gaitasunak urrituta dituztelako, eta, ondorioz, desberdintasunak eta diskriminazioa gehien pairatzen dituztenak direlako. Estatu sozialaren filosofiak politika publikoek herritarren eskubideak erabat egikaritzea eragozten duten oztopoak mugiarazten dituztela gauzatu behar du. Justiziaren aginduak jarduera publikoa sendoagoa izatera bultzatzen du, kendu beharreko oztopoak ere handiagoak diren eremuetan. Hala, esparru-dokumentu honek, kontzienteki eta bera-riaz, bai bere egituran, bai ekintza-programetan, lehentasunezko begirada bat emango die egoera zaurgarrienen dauden pertsonen eta kolektiboen eskubideei, diskriminazioa murrizteko eta askatasun eta justizia osoan oinarritutako estatu bat sustatzeko.

3.

Helburuak

Esparru-dokumentu honetan aurreikusitako jarduerak eta helburuek, lehenik eta behin, AFA-ren Gobernu Planetik abiatu behar dute. Lurraldearentzako Planean ezarritako «Araba Kohesionatu eta Inklusiboa» ardatzaren baitan, 11 helburu estrategiko eta 28 jarduera-ildo azaltzen dira.

Horien artean, hemen zehazten dira Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailari dagokionak:

02.8 – Arabako gizarte berdinzalea lortzea – Jarduera ildoak

A2.8.1	Indarkeria matxista desagerraraztea sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren arloan
A2.8.2	Genero-ikuspegia politika publikoetan sartzea eta Lurraldeko emakumeen parte-hartze sozialerako espazioak sustatzea.
A2.8.3	Sexu eta genero-aniztasuna ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak.
A2.8.4	Genero indarkeriaren aurkako baliabideak indartzea eta handitzea sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren arloan.

02.9 – Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea – Jarduera ildoak

A2.9.1	Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea.
--------	--

02.10 – Araba inklusiboagoa, kohesionatuagoa eta solidarioagoa eraikitzea – Jarduera ildoak

A2.10.1	Garapenerako lankidetzak, maila globalean zaugarrienak eta diskriminatuenak diren pertsonen erantzuteko.
A2.10.2	Arraza aurreiritzi eta estereotipoen aurka sentsibilizatzeko eta kulturen arteko bizikidetzak hobetzeko ekintzak garatzea.

Jarraian, orain arte azaldu den guztia kontuan hartuta, Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren arloko ekintza zehatzak aurkeztuko dira. Ekintza horiek, lurraldearen inguruabarrekin eta berezitasunekin, bai eta bere potentzialtasunekin eta aukerekin bat etorritik, jada azaldutako giza eskubideen nazioarteko estandarrekin lerrokatutako helburuak betetzera bideratuko dira.

4.

Jarduera-eremuak

Esparru-dokumentu honen helburu nagusia Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren Giza Eskubideen arloko etorkizuneko programen garapenerako oinarriak ezartzea da. Etorkizuneko ekintzak orientatzen dituen eta horien aplikazioa Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin koherentzia finkatzen duen erreferentziazko testua da. Arreta berezia eskainiko die azaleratzen ari diren eskubideei, hau da, gaur egungo eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturei erantzuteko sortzen diren eskubideei (eskubide emergenteak, besteak beste teknologiarako eta prebentzio-sistemarako sarbidea izateko eskubidea, ingurumen eta klima seguru, osasuntsu, garbi eta iraunkorrerako eskubidea). Eskubide horietako batzuek, aurrekaririk gabe edo juridikoki aitortutako eskubideekin lotura gutxi izanik (oinarrizko errenta, heriotza duina, mugikortasuna eta sexu-orientazioarekin lotutako eskubideak), behar berrien aurrean egokitzea eta erantzuna, erantzukizuna, ekitatea eta belaunaldien arteko elkartasuna lortzeko beharra islatzen dute.

Horrela, helburua eduki sektorial desberdinek oinarri izango duten egitura sendo bat ezartzea da. Modu horretan, azalduko diren ekintzek gai estrukturalagoei (barneko lan-kanalen antolaketa, gizarte zibilarekin eta antolatuekin komunikatzeko kanalen antolaketa...) zein kolektibo eta pertsona zehatzengan eragina duten gai zuzenei eskaini behar diete arreta.

Jarraian esku hartzeko bederatzi sektore aurkezten dira, zeinetan garatu beharreko ekintza zehatzak definituko diren, urte anitzeko kronograma progresibo baten arabera. Kronograma hori dokumentu hau partekatzeko eta eztabaidatzeko parte-hartze prozesu batekin hasiko da, etorkizunean ekarpen gehiago egiteko aukera irekia ahalbidetuko duen planteamendu zabal batekin. Ondoren, gainerako zortzi sektoreen jardun-eremua zehazten da, epigrafe hauetan multzokatuta:

- Giza eskubideei buruzko prestakuntza;
- Giza eskubideak babesteari eta sustatzeari buruzko sentsibilizazioa Araban;
- Giza eskubideen hezkuntza;
- Koordinazioa eta giza eskubideen ikuspegiak Kulturartekotasun, Berdintasun eta Lankidetzaren arloetan;
- Arabako giza eskubideen eragileen lotura-sarea indartzea eta AFA-k giza eskubideen erakunde desberdinetan (Eusko Jaurlaritza/Aldundiak/Udalak/Kuadrillak) parte hartzea;

- Giza Eskubideen barne-ikuskaritza;
- Memoria Historikoa berreskuratzea Araban;
- Arabako iragan hurbileko indarkeria politikoari arreta emateko programa.

4.1. ESPARRU-DOKUMENTUAREN PARTE-HARTZE PROZESUA

Esan bezala, esparru-dokumentu honen helburua AFAn giza eskubideen eta memoria historikoaren arloko politiken jarduera-ildoak ezartzea da, 2025eko lehen hiruhilekoan egindako diagnostikoaren ondorio nagusiak eta AFaren Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren programen eta praktiken azterketa oinarri hartuta.

Horretarako, esparru-dokumentuaren lehen bertsioa amaitu ondoren, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak harreman-txanda bat hasiko du lurraldeko eragile estrategikoeekin (batez ere gobernu kanpoko erakundeekin), dokumentua baloratu eta kontraste-informazioa jaso ahal izateko. Parte-hartzaile diren erakundeen artean, lan egiten duten gizarte-ekintzaren arabera profilen artean honakoak aurki daitezke: osasunarekin lotutakoak, etxerik gabeko pertsonekin, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin, haurrekin, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeekin, migratzaileekin, asilo-bilatzaileekin eta gizarte-bazterkerian dauden biztanleekin lotutako taldeak; bai eta kulturarteko bizikidetzak lantzen duten eta giza eskubideak sustatzen dituztenak ere, bai ikerketari dagokionez, bai sustapen eta sentsibilizazioari dagokionez, dibulgazio bezalako tresnen bidez.

Harreman-eredu eraginkorra bilatzen da, baina ez burokratikoa; bere funtzioak arintasunez eta seriotasunez beteko dituen, prozesu formalistek lurperatu gabe. Eredu hori, azken batean, neurrizkoa da, helburuetarako eta lurraldearen masa kritikorako egokia eta neurrikoa.

Hori dela eta, 2025eko abenduan jendaurrean aurkeztu arte, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela-eta programatutako Jardunaldiaren testuinguruan, parte-hartze prozesuak urrats hauek jarraituko ditu:

- Dokumentuaren lehen bertsioa Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari ematea, Zuzendaritzak berak ekarpen guztiak egin ditzan.
- Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrak berregitea eta Zuzendaritzari aurretiazko dokumentu bat aurkeztea.
- Aurretiazko dokumentu hori Arabako Lurralde Historikoko eragile estrategikoei bidaltzea, kontrastatzeko.
- Azken dokumentua ixtea.
- Jendurreko aurkezpena: 2025eko abendua.
- Parte-hartze iraunkorreko bideak zehaztea, esparru-dokumentuaren garapen-kronogramaren arabera (1. EKINTZA).

Esparru-dokumentu hau bokazio parte-hartzailearekin eraiki denez, dokumentuaren beraren eta garatzen diren programa operatiboen exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko espazioak izango dira. Era berean, esparru-dokumentu honek konpromisoa hartzen du gardentasunarekin eta kontuak ematearekin, bertan aurreikusitako neurri guztiekin batera doazen printzipio gisa.

4.2. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PRESTAKUNTZA: AFAREN BARRUAN ETA ARABAKO ERAGILE ESTRATEGIKOENTZAT

Giza eskubideetan heztea eta prestatzea funtsezkoak dira giza eskubideak eta oinarriko askatasunak eraginkortasunez erabiltzeko, eta nabarmen laguntzen dute berdintasuna sustatzen, gatazkak eta giza eskubideen urraketak eta urraketak prebenitzen, eta parte-hartzea eta prozesu demokratikoak sustatzen, gizaki guztiak balioetsi eta errespetatuko dituzten gizarteak ezartzeko, inolako diskriminaziorik eta bereizketarik gabe, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein motatakoa, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza bezalako arrazoiengatik. (A/HR/RES/31/21)

Halaber, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak eta prestakuntzak funtzio garrantzitsua bete dezakete zuzenbide-estatu, demokrazia, gobernantza ona eta bake iraunkorra sustatzeko. Epe luzerako prozesua da, eta bizitza osoan irauten du. Prozesu horretan, pertsona guztiek ikasten dute toleranteak izaten eta besteen duintasuna errespetatzen, bai eta gizarte guztietan errespetu hori bermatzeko bitartekoak eta metodoak ere.

Erakunde publikoek eginkizun garrantzitsua dute hezkuntzari eta giza eskubideen arloko prestakuntzari buruzko politika eraginkorrak sustatzeko. Hala, giza eskubideen arloko edozein esku-hartze publikok estandarrak ezagutu ahal izango dituzten koadro teknikoaren masa kritikoa prestatu, indartu eta zabaldu behar du, eta giza eskubideen urraketak salatzeko, eskubideak eta prestazioak berrezartzeko eta komunitateei ahalduntzea ziurtatuko dieten tresnak emateko estrategiak bideratu behar ditu, Nazio Batuen gomendioetan oinarrituta. (A/HRC/42/22) eta (A/HRC/51/10).

Arabako Foru Aldundiaren kasuan, komenigarria dirudi esku-hartze ildo hori lehenik erakundearen langileei zuzentzea eta xede-taldeak eta ezarri beharreko edukiak identifikatzea.

Zehazki, (2. EKINTZA) Arabako Foru Aldundian giza eskubideen arloko prestakuntza-estrategia bat identifikatu nahi da, lehentasunezko prestakuntzaren xede izan beharko luketen funtsezko pertsonak eta eduki fokal premiazkoenak zehazteko (giza eskubideen nazioarteko zuzenbiderako sarrera; giza eskubideen ikuspegia politika publikoetan; kontrol-mekanismoak; zaurgarritasun-egoeran dauden taldeak: emakumeak eta neskatok, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak, LGTBIQ+ pertsonak, migratzaileak, adinekoak...; giza eskubideak eta indarraren erabilera; giza eskubideak eta garapen iraunkorra eta ingurumena; herritarren parte-hartzea eta eskubideen defentsa; ebaluazio-adierazleak...). Komunikabideei zuzendutako prestakuntzari ere arreta eskainiko zaio, giza eskubideen

eremu orokorrean nahiz kolektibo zaurgarrienetan eragin dezaketen gaiei buruzko zurrumurruen zein informazio fidagarriaren hedapenean duen paper nabarmenagatik.

Era berean, lurraldeko eragile estrategikoentzako (GKEak, tokiko eragileak, Koadri-lak, etab.) giza eskubideei buruzko prestakuntzaren plangintza eta gauzatzea, prestakun-tza-estrategia iraunkor bat lortzeko trebakuntza-lehentasunak zehaztuko dituen, AFaren barruko esku-hartzearekin batera landuko da. Prestakuntza hori oinarrizko zutabea da, bai lurraldean arraza, sexu-orientazioa, adina eta abar direla-eta hautemandako diskriminazio-egoerak hobetzeko programen arrakasta bermatzeko, bai Arabako Foru Aldundiaren eta Araban dauden erakunde eta elkarten arteko lotura hobetzeko.

Bestalde, diagnostikoak erakutsi du Arabako elkarte-sareak laguntza behar duela prestakuntzari eta ekonomiari dagokienez. Lurraldean lan egiten duten GKEei zuzendu-tako giza eskubideei buruzko prestakuntza-programa bat planifikatzea funtsezkoa da giza eskubideen kulturaren ekintza-eremua hedatzeko eta etorkizun bidezkoago eta askeago bati begira gizartearen eraldatzen laguntzeko.

4.3. ARABAN GIZA ESKUBIDEAK BABESTEARI ETA SUSTATZEARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA

Giza eskubideen inguruko sentsibilizazioa etengabeko eta funtsezko prozesua da Araba bidezkoagoa eta berdina eraikitzeko. Arabako gure herrikideen egoeraz -eskubideez go-zatzeaz- jabetzea ahalbidetzen duen bide bat da, eta funtsezko zeregina da egoera zaurga-rrian daudenekin elkartasun-loturak sortzeko. Giza eskubideez jabetzean, pertsonen bide-gabekeria- eta diskriminazio-egoerak identifika ditzakete, eta horiek konpontzeko lan egin, bakoitzak bere eremutik, gizarte berdinzaleago bati lagunduz. Prozesu horrek pertsona guz-tien giza eskubideak errespetatzearen, babestearen eta sustatzearen garrantziari eta pre-miari buruz hezteko, gogoeta egitea eta kontzientzia hartzea eskatzen du, baita pertsona guz-tientzat, jatorria, generoa, arraza, erlijioa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe, eskubide horiek beteko direla bermatzeko enpatia eta konpromisoa sortzea ere.

Azken batean, giza eskubideei buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak bi-tarteko eraginkorrak dira pertsonen beren eskubideak gauza ditzaten eta gainerakoek errespetatu eta defenda ditzaten. Zeregin horretan, tokiko gobernuek funtsezko zeregina dute politika publikoak abian jartzeko orduan, politika horiek ez badituzte baztertzen, bai-zik eta aniztasuna besarkatzen badute eta pertsona guztien ongizatea bermatzen badute. Tokiko gobernuek, herritarrekin harreman zuzena eta ohikoa dutenez, posizio strategi-koa dute zaurgarritasun-egoeran dauden taldeen (emakumeak, haurrak, desgaitasuna du-ten pertsonak, migratzaileak, adinekoak, LGTBIQ+ pertsonak, etab.) eskubide-uraketak eta/edo premia espezifikoak detektatzeko eta horiei arreta eman ahal izateko.

Horri dagokionez, Ehuntzen programa har daiteke adibidetzat. AFAk, Lurraldean lan egiten duten hiru elkarterekin batera, babesa ematen die eta nazioarteko babesa eskatzen duten adingabeekin lan egiten dute, batez ere landa-eremuan, haien integrazioa eta parte-hartzea sustatuz gizarte-, kultura- eta hezkuntza-dinamiketan. Laguntza komunitarioko sa-

reak sortzeko bultzada horrek integrazioa errazten du, etxebizitzaren arazoa ere kontuan hartuta, hori baita sortzen ari den eskubide iraunkorrenetako bat.

Puntu honetan, azpimarratu behar da giza eskubideez sentsibilizatzeko estrategiak eta tresnak ugariak eta askotarikoak direla, hala nola zuzentzen diren errealitateak edo eragin nahi den eremua: giza eskubideei buruzko informazio-kanpainak komunikabideen eta sare sozialen bidez, ekitaldiak, erakusketak, lehiaketak, antzezlanak edota pertsonen giza eskubideak modu sortzailean ezagutu eta esperimendatzeko aukera ematen duten beste edozein jarduera batzuk antolatu daitezke. Hain zuzen ere, helburua da ekimen guztiak mezu orokor beraren bidez bateratzea: mundua hobea izango da giza eskubide guztiak errespetatzen eta defendatzen baditugu, gizarte-joera bat sortzea, edozein motibazio eragindako diskriminazioen aurrean euste-dikearena egingo duena.

Oroitzapenezko jarduerak, urteurrenak eta gainerako ekitaldi bereziak giza eskubideen sustapena eta babesa sustatzeko beste metodo eraginkor bat dira. (A/HRC/42/22 30. or.). Araban, urtero, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna (3. EKINTZA) giza eskubideen defentsaren hainbat alderdi aldarrikatzeko aukera da, Nazio Batuek urtero proposatzen duten leloarekin bat etorritik.

4.4. GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

Giza Eskubideetan – eta Giza Eskubideentzat – oinarritutako Hezkuntza honela defini daiteke: «Giza eskubideen esparruan kultura unibertsala sortzera bideratutako trebakuntza-, hedapen- eta informazio-jardueren multzoa. Jarduera horiek ezagutzak eta balioak transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:

- a) Giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua ezagutzea eta indartzea;
- b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea;
- c) Pertsona, nazio, herri indigena eta arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza talde guztien arteko ulermena, tolerantzia, sexuen arteko berdintasuna eta adiskidetasuna sustatzea;
- d) Pertsona guztiek gizarte aske batean benetan parte har dezaten erraztea;
- e) Nazio Batuen bakeari eusteko jarduerak areagotzea. « (A/52/469/Add.1, 1997ko azaroaren 20a).

Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza giza eskubideen plangintza ororen egitura-jardura eta bizkarrezurra da. Eskubideen deklarazioaren eta eskubide horiek inplementatzeko eta bermatzeko borroka amaitu gabearen aurrean, duela gutxi baino ez da jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen arloan lan sistematikoa, koordinatua eta iraunkorra egitea. Segur aski, gerra hotzeko blokeen arteko borroka ideologikoa gainditzeak bakarrik ekarri zuen, joan den mendeko 90eko hamarkadan, giza eskubideen kultura modu bateratuan bultzatzeko agertoki berri bat, eskakizun zatiezin, interdependente eta unibertsal gisa.

Inflexio-puntua Giza Eskubideen Munduko Konferentzian kokatu behar da. Konferentzia hori Nazio Batuek babesten dute eta Vienan egin zen 1993an. Konferentzia horren azken adierazpenean eta ekintza-programan behin betiko jabetu zen giza eskubideen arloko hezkuntza, gaikuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, eta elkarren arteko ulermena, tolerantzia eta bakea sustatzeko. Konferentziak, gainera, berariaz eskatu zien estatu eta erakundeei giza eskubideak, zuzenbide humanitarioa, demokrazia eta legearen inperioa sar zitzatela irakaskuntza akademikoko eta ez-akademikoko erakunde guztien ikasketa-programen gai gisa.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBERen Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, 1995-2004 aldia giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen. Esparru horretan, jarduera-programa orokor bat ezarri zen, eta horren ardatz nagusia estatuak edo eskualdeko erakundeek beren ekintza-plana aurkezteko beharra zen. Giza eskubideen esferan hezteko Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskergak ez zuen aldi baterako lan mugatua egitea bilatzen. Nazioarteko Komunitatea mobilizatu nahi zuen, oinarri sendoak jartzeko, eta horien gainean etengabe eta modu iraunkorrean urratsak egiteko. Horregatik, hamarkada amaitzean eta emaitzak ebaluatu ondoren, gaur egun indarrean dagoen jarduera-programa berri bat jarri zen abian.

NBERen Batzar Nagusiak, 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Munduko Programa aldarrikatu zuen. Programa hori 2005eko urtarrilaren 1ean hasi zen gauzatzen, eta ondoz ondoko hainbat etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauzatu daitezen sustatzeko. Mundu Programak giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren oinarriko printzipioen eta metodologiaren ulermen komuna sustatzea, ekintzarako esparru zehatz bat eskaintzea eta nazioarteko mailatik oinarrietaraino elkarteak eta lankidetzak indartzea du helburu. Estatu kideek Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programaren (2005-) laugarren fasearen (2020-2024) ezarpena bideratzeko Ekintza Plana onartu zuten, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin eta, bereziki, Garapen Jasangarriko Helburuen 4.7 eta 16. helburuekin bat etorritik.

Arabako Foru Aldundia, Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzaren bitartez, posizio instituzional egokian dago korrante unibertsal horretan laguntzeko, beste eragile instituzional batzuen (Eusko Jaurlaritza, udalak...) ahaleginekin koordinatuta. Horregatik, giza eskubideen aldeko hezkuntza-plan bat (4. EKINTZA) garatu behar da Arabako lurralderako, eta plan horrek, bere eskumenen arabera, jarduera sektorial bat sartu behar du hezkuntza ez-formalean eta informalean. Hain zuzen, ekintza zehatz gisa forubeka bat gehituko da (ahal dela urtean behin: (5. EKINTZA) Arabako Lurraldean giza eskubideak sustatzeko, eta gaikako informazio- edo sentsibilizazio-kanpainak (6. EKINTZA).

4.5. GIZA ESKUBIDEEN KOORDINAZIOA ETA IKUSPEGIA KULTURARTEKOTASUNA, BERDINTASUNA ETA LANKIDETZA ARLOETAN

Giza eskubideen arloko lanaren oinarri diren printzipio gidariak (zatiezintasuna, interdependentsia, unibertsaltasuna, besterenezintasuna eta giza eskubideak arian-arian gau-

zatzea) bizikidetzaren inguruan hartutako konpromisoak eta gizarte-harremanak ulertzeko modu bat azaltzen dute. Printzipio edo gida-idea horien arabera, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Planaren («Araba inklusiboagoa, kohesionatuagoa eta solidarioagoa erakitzea» eta «berdintasunezko Arabako gizarte lortzea») 02.10 eta 0.8 helburu orokorrak kontuan hartuta, Berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako Zuzendaritzaren eta zuzendaritza horren egiteke dauden arloen lanak koordinazio naturala mantendu behar du, giza eskubideen izendatzaile komunaren pean.

Berdintasunaren, kulturartekotasunaren edo lankidetzaren arloko ekintza oro giza eskubideen defentsaren berezko jarduera bat da. Berdintasuna, diskriminaziorik eza, garapen iraunkorra edo gorroto-delituen prebentzioa bultzatzeko jarduerak edo programak, adibidez, giza eskubideak defendatzeko eta babesteko jarduera dira. Hala ere, ez dira beti horrela artikulatzen, ezta adierazten ere, eta, beraz, gai horietan giza eskubideen ikuspegi erabakitasun handiagoz hurbiltzeak zehatzago eta agerikoago bihurtuko luke.

Adibidez, immigrazioaren kudeaketari aplikatutako giza eskubideen politiken kasuan, politika horiek funtsezkoak dira komunitate hartzaileetan bizikidetzak baketsua, inklusiboa eta bidezkoa bermatzeko. Tokian-tokian, migratzaileen etorrerarekin sortzen diren erronek eta aukerei heltzeko aukera ematen dute politika horiek, haien duintasuna errespetatuz eta gizarte-kohesioa sustatuz.

Bestalde, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra eskubideen bermea da, eta Arabako Foru Aldundiaren apustu ukaezina. Horregatik, genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerraraztea, sexismoa prebenitzea eta borrokatzea, eta emakumeek gizartean duten parte-hartzea eta ikusgarritasuna sustatzea giza eskubideen ikuspegitik lehentasunezkoak dira, eta horiek ere Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan jasota daude, bereziki 5. helburuan.

Hori horrela izanik, giza eskubideen begirada sistematikoki zabal daiteke Berdintasun, Lankidetzak edo Kulturartekotasun arloen ikuspegitik, giza eskubideen ikuspegitik arlo horietako lana ikusarazten lagun dezakeen jarduera edo programa esanguratsuren baten bidez. Helburua izango litzateke giza eskubideen ikuspegi sakontzea arlo horietako jarduera eta politiketan, eta hizkuntza komun bat ehuntzen joatea, sakoneko ildo komun batzuekin, giza eskubideen ikuspegi oinarritutako lankidetzak eta koordinazioa ekarriko luketenak, arlo bakoitzaren autonomia galdu gabe.

4.6. ARABAKO GIZA ESKUBIDEEN AGENTEEN LOTURA-SAREA INDARTZEA ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK GIZA ESKUBIDEEN ERAKUNDEETAN (EUSKO JAURLARITZA, ALDUNDIAK, UDALAK, KOADRILAK) PARTE HARTZEA

Giza eskubideen kultura bultzatzeak eta modu eraginkorrean egiteak bereziki eskatzen du koordinazio-, partaidetza- eta sustapen-egitura eraginkor, sendo eta iraunkor bat sortzea. Eragile estrategikoen arteko harreman- eta koordinazio-eredurik gabe, arlo horietako politika publikoak errealitate sozialetik bereizteko arriskua dago.

Gainera, jardun politiko-instituzionalaren eta gizarte-ekimenaren arteko beharrezko aliantzak eta osagarritasunak «autismo instituzionalaren» arriskuak saihesten laguntzen dute, eta, are gehiago, botere-egituren autoritarismo-tentazioak saihesten laguntzen dute. Giza eskubideen gaia hain delikatu eta kritikoa izanik, oinarritzko adostasun sozialak gizarte zibilaren bultzadaz kudeatu eta aberastu behar dira, gizarte zibilaren jardura politika publikoetatik behar bezala bideratu eta bermatu ahal izateko. Eta hori, hala ere, erantzukizun publikoaren printzipio nagusia alde batera utzi gabe, lidergo instituzionala ezinbestekotzat eta ukaezintzat jotzen baitu, baina modu naturalean eta arinean gauzatu behar baita, desadostasunerako eskubidea barne, indarren metaketarekin eta gizarte-indarrekiko errespetuzko lankidetzarekin. Ildo horretan, hainbat arrazoiengatik egituratuta ez dauden kolektibo garrantzitsuengana iristeko, haien parte-hartzea erraztuko da, haiekin harremanetan egon ohi diren elkarleen eta taldeen bitartekaritzaren bidez, kolektibo horiek ikusaraztea eta, batzuetan, ekintza batzuk gauzatzeko eragile gisa lankidetzan aritzea bermatu ahal izateko.

Adierazitako guztiagatik, gutxienez hiru mailatako harreman-ereduarekin jarraitu behar da: erakundean bertan (Arabako Foru Aldundia); erakunde arteko mailan (Aldunditik udaletara eta koadriletara, eta Eusko Jaurlaritzara eta giza eskubideen arloko beste erakunde ofizial batzuetara, estatukoak zein nazioartekoak) eta gizarte zibilaren mailan.

Beraz, maila horien arteko lotura-funtzioa bideratu behar da, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bere gain hartuko duena: Aldundian zeharkakotasuna ziurtatuz, lehenik; lurraldeko erakunde-sarearekin eta hark beste erakunde ofizial batzuekin duen komunikazio-kanala izanik, bigarrenik; eta, azkenik, gizarte zibilaren eta lurraldeko eragile estrategikoen ahotsa entzuteko eta, aldi berean, informazioa norabide guztietan zabaltzeko aukera emanez.

Eta azken hori behar bezala bideratzeko, beharrezkoa da Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren partaidetza sozialerako organoak berrikustea (7. EKINTZA – ikus 4.1. atalaz gaindikoa ere –). Horrela, zerbitzu bakoitzeko sare bat aukeratuko da – kasu horretan, giza eskubideen agenda independente bati erantzungo dion sare berri bat –, edo bateratze-prozesu bat, berdintasun-, lankidetz- eta kulturartekotasun-zerbitzuen sareen bidez bideratua. (7. EKINTZA)

4.7. GIZA ESKUBIDEEN BARNE-IKUSKARITZA

Zuzen adierazi den bezala, «ez dago etikoki edo juridikoki baliozkotzat jo daitekeen politika publikorik, baldin eta, diseinuaren edo ondorioen arabera, giza eskubideak urratzen baditu eta estatu demokratiko batek horiek errespetatu eta bermatu behar baditu»¹⁹.

Oro har, giza eskubideen auditoria baten funtzioa da Arabako Foru Aldundia bezalako erakunde publiko baten politikek edo ekintzek giza eskubideak nazioko eta nazioarteko estandarren arabera errespetatzen dituztela ebaluatzea eta bermatzea.

¹⁹ Salvioli, F. [Fabián]. (2020). «Introducción a los derechos humanos. Concepto, fundamento, características, obligaciones del Estado, y criterios de interpretación jurídica». Tirant lo Blanch.

Auditoretza horren lehen urrats gisa, barne-lan bat aurreikusten da, Arabako Foru Aldundiak bere eskumeneko legeria eta politika publikoak kontrolatzeko eredu bat ezartzean fokua jar dezan eta, foru-jarduera jakin batzuek giza eskubideen sustapenean eta babesean duten eragina ebaluatuko du, pixkanaka foru-ekintza oro bere edukietan berrikusi eta txkeatuko dela ziurtatzeko, nazioarteko estandarrekin bateragarria dela bermatze aldera. (8. EKINTZA). Gainera, arreta berezia eskainiko dio politika publikoen giza eskubideen *ikuspegia* deiturikoa kontuan hartzeari.

Hala, lehen fase honetarako, funtsezko foru-jarduera batzuk aztertzea aurreikusten da, giza eskubideetan zuzeneko eragin gisa, giza eskubideen bermean eta gozamenen izan daitezkeen eragin negatiboak detektatzeko eta, hala badagokio, zuzentzeko, bereziki egoera zaurgarrienean dauden pertsonen eta kolektiboen dagokienez.

4.8. MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEA ARABAN

Gerra Zibila eta diktadura frankista gogoetarako gai garrantzitsuak dira, zalantzarik gabe. Azken hamarkadetan, eta batez ere 2007ko Memoria Historikoaren Legea, 2022ko Memoria Demokratikoaren Legea eta 2023ko Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartu zirenetik, gai horrekiko interesa areagotu da, eta planteatu da egindako ikerketek bide eman diezaietela botere publikoek benetako memoria-politika bat sortzeko.

Iraganera begiratzen duen politika, baina gerra zibilaren aurretik eta ondoren egin ziren gerra krimen larrien eta gizateriaren aurkako krimenen «inoiz gehiago ez» printzipioan oinarritutako bizikidetza demokratikoaren eredu bat etorkizunerantz proiektatzeko.

Doktrina espezializatuak behar bezala jasotzen duen bezala, «*Gaur egungo iritzia da justizia trantsizionaleko prozesuak Estatuentzako giza eskubideen betebeharrak benetan betetzean oinarritu eta garatu behar direla. Gainera, justizia trantsizionalaren zutabeak diskriminaziorik ezaren printzipioak behar bezala kontuan hartuta sustatu behar dira, genero-ikuspegia eta biktimengan oinarritutako ikuspegia txertatu behar dira, eta giza eskubideen urraketa larrien funtsezko kausen aurka borrokatzea izan behar dute helburu*»²⁰.

Zeregin hori, beraz, erakunde publiko guztiei dagokie, toki-eremutik hasi eta estatu-esparrura arte, giza eskubideen urraketak eta egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze bermea aitortzearen alde.

Arabako Foru Aldundiaren ardura da gizonen eta emakumeen memoria berreskuratzea, memoria hori hedatzea eta etorkizuneko belaunaldiei helaraztea, biktimen egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak babestuz, kolpe militarren, haren ondorengo gerraren eta ondorengo diktadura frankistaren biktimen giza eskubideen urraketa larrien egoerak ahalik eta zehatzen argitara emango dituzten ikerketak bultzatuz.

²⁰ Giza Eskubideen Kontseilua (2023). *Justizia trantsizionalaren zutabeei eusten dieten nazioarteko estandar juridikoak*. Errelatore bereziaren txostena, egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze bermei buruzkoa. Fabian Salvioli. A/HRC/54/24.

Gertatu behar ez ziren egitate historikoen bidegabekeria jasan zuten biktimen egoera ikertu, zabaldu, gogoratu eta jendaurrean aitortzeko Arabako Foru Aldundiaren konpromisoa ez da zerotik hasten. Arlo horretako jarduera publiko eta instituzionala ez da hutsean hasi; aitzitik, urrats berri bat da, orain arte garatutako jardueren bolumena sendotu eta zabaltzen duena.

Zeregin horren barruan hainbat motatako ekimenak sartzen dira, hala nola frankismoaren aurkako borrokan leku sinbolikoak berreskuratzea, gorpuzkiak lurpetik ateratzea, artxiboak berrantolatzea, gertaera historikoak ikertzea eta zabaltzea, datu-baseak egitea, testigantzak biltzea eta abar. Lan horrek, halaber, Giza Eskubideen arloko arreta jasotzen du, batzuetan antolatutako gizarte zibilarekin edo Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen senideekin lankidetzan, eta beste batzuetan gizartearen bul-tzadaz.

Illo horretan, beharrezkoa da, gainera, genero-ikuspegidun memoria historikoa berreskuratzea, emakumeek jasandako indarkeria guztia aztertu eta konpontzeko gai izango den ikuspegi osoa eta testuingurua izango duena, giza eskubideen kultura inklusiboa eraikitzeko helburuarekin (9. EKINTZA).

4.9. ARABAKO IRAGAN HURBILEKO INDARKERIA POLITIKOARI ARRETA EMATEKO PROGRAMA

Iragan hurbil batean, Araban, euskal gizarte osoan bezala, indarkeria-egoera larriak eta motibazio politikoko giza eskubideen urraketak bizi izan dira, mota askotakoak eta hainbat egile protagonista dituztenak (ETA, eskuin muturreko terrorismoak, estatuko agenteak): hilketak, bahiketak, torturak, atxiloketa arbitrarioak, sabotajeak, estortsio ekonomikoa, jazarpen-indarkeria... Autoretzetatik haratago, kasu guztietan emaitza bera izan da: sufrimendu bidegabe izugarria eta min sakona biktima zuzen guztien, haien senideen eta hurbileko pertsonen artean. Horrek guztiak, gainera, eragin kolektiboa du gizarte-sare osoan. Urteetan zehar testuinguru politikoa aldatu egin da —diktadura, trantsizioa, demokrazia—, baina indarkeria-ekintza horiek intentsitate eta proportzio desberdinetan gertatzen jarraitu dute.

Oroimenari heltzeko lanak, indarkeriak hautsitako iragana aztertzeak, bizikidetzan haustura gehiago sortu gabe, adostasun-esparru unibertsala eskatzen du: giza eskubideak.

Gai honetan, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen ezinbesteko erreferentzia-puntua Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartutako 60/147 Ebazpena da, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideei buruzkoa. Hitzek hitz, estatuek betebeharrak dituzte:

- a) Lege- eta administrazio-xedapenak eta urraketak eragozteko bestelako neurri egokiak hartzea;

- b) Urraketak modu eraginkorrean, azkarrean, osoan eta inpartzialean ikertzea, eta, hala denean, ustezko erantzuleen aurkako neurriak hartzea, barneko eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritz;
- c) Giza eskubideen urraketaren edo eskubide humanitarioaren biktima direla diotenei justiziarako sarbide zuzen eta eraginkorra ematea, aurrerago deskribatuko den bezala, urraketaren erantzulea nor den alde batera utzita; eta
- d) Biktimei baliabide eraginkorrak ematea, baita erreparazioa ere, aurrerago deskribatuko den bezala.²¹

Bereziki, biktimek honako eskubide hauek dituzte: a) gizatasunez tratatuak izateko eta beren duintasuna eta giza eskubideak errespetatzeko eskubidea, b) justiziarako sarbide berdina eta eraginkorra izateko eskubidea, c) jasandako kaltearen erreparazio egokia, eraginkorra eta azkarra izateko eskubidea, eta d) giza eskubideen urraketari eta erreparazio-mekanismoen buruzko informazio egokia eskuratzeko eskubidea.

Nazio Batuen ebazpenetan xedatutakoaren arabera, herri-administrazioaren maila guztietako gobernuari agindutako lehen zeregina egia guztiak argitara ateratzea da, gertakari guztiak ezagutzea, diskriminaziorik gabe, gertatutakoaren memoria ikuspegi integral batekin berreraikitzea ahalbidetzeko.

Memoria historikoa berreskuratzeko programekin bezala, Arabako Foru Aldundiaren zeregina izango da, motibazio politikoko testuinguru batean (1960tik aurrera, terrorismoaren biktimei laguntzeko araudiaren eta 107/2012 Dekretuaren eta 12/2016 Legearen arabera), giza eskubideen urraketa larriari eta jardun terroristei dagokienez, egia, justizia eta erreparazioa lortzen laguntzeko jarduerak eta ikerketak garatzea, ez erreplikatzeko neurriak barne.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak ematen digun ikuspegi horrekin, martxoaren 3ko memorialari laguntza iraunkorra ematea aurreikusten da, Martxoak 3 memoria-fundazioaren patronatuaren esparruan. Bertan, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak, Gasteizko Gotzaindegiak eta Martxoak 3 eta Memoria Gara elkarteetako ordezkariak parte hartzen dute.

Azkenik, azpimarratuko dugu bereziki garrantzitsua dela genero-ikuspegia txertatzea iraganean gertatutakoaren ikuspegi osoa lortzeko, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko ikerketa guztietan. Begirada horrek aukera ematen du jakiteko gizonak eta emakumeak indarkeria mota desberdinak jasaten dituztela gatazka-egoeretan eta gatazka osteko egoeretan, eta, indarkeria horien biktima izan arren, indarkeria horiek eragin desberdinak dituztela beren bizitzetan, gizartean betetzen dituzten rol desberdinetatik. Ikuspegi hori gabe, lortutako emaitzak memoriaren ikuspegi partziala emango luke, aztertu eta ezagutu gabeko indarkeria-egoerak atzean utzita. (10. EKINTZA)

²¹ 60/1947 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16ko Batzar Nagusiak onartua, 3. paragrafoa.

5. Ekintzak eta kronograma

Zuzendaritzaren azterketaren eta AFaren inguruabarren arabera, arestian azaldu-takoaren arabera zenbakitutako eta dokumentuan zehaztutako ekintza zehatzak be-ren irizpidearen eta lurraldearen eta AFaren inguruabarren arabera finkatuko dira. Zu-zendaritzak eta langile eskudunek forma eman eta denbora-tarte egingarrietan finkatu beharko dituzte, baina horrek ez du esan nahi hemen, gaingiroki, urtez urte gauzatu beharreko ekintzen kronograma bat proposatzen ez denik, ekintza bakoitzaren jarduera-eremua adierazita:

2025 URTEA	EKINTZA 3: Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzea (ur-tero) giza eskubideen defentsaren hainbat alderdi aldarrikatzeko aukera da, Nazio Batuek urtero proposatzen duten leloarekin bat etorritik. Eta, hala badagokio, ospakizuna giza eskubideak defen-datzeke edo sustatzeko erreferente gisa adierazitako beste egun batzuetara luzatzea.	Arabian Giza Eskubideak babesteari eta susta-tzeari buruzko sentsibi-lizazioa
	EKINTZA 1: parte-hartze iraunkorreko bideak zehaztea, esparru-dokumentuaren garapen-kronogramaren arabera.	Esparru-dokumentuan parte hartzeko prozesua
2026 URTEA	EKINTZA 2: Arabako Foru Aldundian giza eskubideen arloko prestakuntza-estrategia bat identifikatzea, lehentasunezko pres-takuntzaren xede izan beharko liratekeen funtsezko pertsonak eta eduki fokal premiazkoenak zehazteko. Era berean, giza esku-bideei buruzko prestakuntza planifikatu eta egingo da lurraldeko eragile estrategikoentzat (GKEak, tokiko eragileak, Koadrilak, etab.), trebakuntza-lehentasunak zehazteko.	Giza Eskubideei buruzko prestakuntza: AFaren barruan eta Arabako era-gile estrategikoentzat
	EKINTZA 4: Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza-plan bat garatzea Arabako lurralderako. Plan horrek, bere eskumenen ara-bera, sektoreko jardura bat jasoko du hezkuntza ez-formalean eta informalean, eta lurraldeko gizarte-eragileen esku-hartzearen bidez bideratuko da.	Giza Eskubideetan oina-rritutako hezkuntza
	EKINTZA 3: Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzea (ur-tero) giza eskubideen defentsaren hainbat alderdi aldarrikatzeko aukera da, Nazio Batuek urtero proposatzen duten leloarekin bat etorritik. Eta, hala badagokio, ospakizuna giza eskubideak defen-datzeke edo sustatzeko erreferente gisa adierazitako beste egun batzuetara luzatzea.	Arabian Giza Eskubideak babesteari eta susta-tzeari buruzko sentsibi-lizazioa

2026 URTEA	EKINTZA 10: Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Gasteizko Udalak, Gasteizko Gotzaindegiak eta Martxoak 3 Elkar- tea eta Memoria Gara elkarteek ordezkariak parte hartzen duten Martxoaren 3ko memoria-fundazioaren Patronatuaren esparruan hainbat ekintza bultzatzea.	Arabian iragan hurbileko indarkeria politikoari arreta emateko pro- grama
	EKINTZA 5: Arabako Lurraldean giza eskubideak sustatzeko foru-beka bat ematea (hobe, urterokoa: 5. EKINTZA).	Giza Eskubideetan oi- narritutako hezkuntza
2027 URTEA	EKINTZA 6: informazio- edo sentsibilizazio-kanpaina tematikoak.	
	EKINTZA 9: genero-ikuspegidun memoria historikoa berreskura- tzea, ikuspegi osoa eta testuinguruan kokatutakoa	Memoria historikoa be- rreskuratzea Araban
AÑO 2028	EKINTZA 3: Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzea (ur- tero) giza eskubideen defentsaren hainbat alderdi aldarrikatzeko aukera da, Nazio Batuek urtero proposatzen duten leloarekin bat etorritik. Eta, hala badagokio, ospakizuna giza eskubideak defen- datzeko edo sustatzeko erreferente gisa adierazitako beste egun batzuetara luzatzea.	Arabian Giza Eskubideak babesteari eta susta- tzeari buruzko sentsibi- lizaioa
	EKINTZA 7: Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendari- tzako parte-hartze sozialeko organoen arteko sinergiak maximi- zatzea eta bilatzea.	Arabako giza eskubideen agenteen lotura-sarea in- dartzeari
	EKINTZA 8: Giza eskubideen barne-ikuskapenen plan bat gara- tzea.	Barne-ikuskaritza
	EKINTZA 5: Arabako Lurraldean giza eskubideak sustatzeko foru-beka bat ematea (hobe, urterokoa: 5. EKINTZA).	Giza Eskubideetan oi- narritutako hezkuntza
	EKINTZA 6: informazio- edo sentsibilizazio-kanpaina tematikoak.	
	EKINTZA 3: Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzea (ur- tero) giza eskubideen defentsaren hainbat alderdi aldarrikatzeko aukera da, Nazio Batuek urtero proposatzen duten leloarekin bat etorritik. Eta, hala badagokio, ospakizuna giza eskubideak defen- datzeko edo sustatzeko erreferente gisa adierazitako beste egun batzuetara luzatzea.	Arabian Giza Eskubideak babesteari eta susta- tzeari buruzko sentsibi- lizaioa

Dokumentuen zerrenda

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950

Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, 1965

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 1966

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa, 1979

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa, 1984

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989

Langile Migratzaile Guztien eta haien Familiakoen Eskubideak Babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa, 1990

A/RES/49/184 Ebazpena, Giza Eskubideen Esferako Hezkuntzarako Nazio Batuen hamarkadari buruzkoa, 1995

A/52/469/1. eranskina, giza eskubideei buruzko gaiei buruzkoa, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen benetako gozamina hobetzeko irizpideak barne, 1997

59/113 Ebazpena, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programari buruzkoa, 2005

Pertsona Guztiak Desagertze Behartuen aurka Babesteko Nazioarteko Konbentzioa, 2006

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 2006

A/HR/RES/31/21 Ebazpena, Giza Eskubideen Kontseiluarena, giza eskubideen arloko hezkuntzari eta prestakuntzari buruzkoa, 2016

Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren A/HRC/42/22 urteko txostena eta Goi Komisarioaren Bulegoaren eta idazkari nagusiaren txostenak, giza eskubide, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztiak sustatzeari eta babesteari buruzkoak, garapenerako eskubi-dea barne, 2019

Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren A/HRC/51/10 urteko txostena eta Goi Komisarioaren Bulegoaren eta Idazkari Nagusiaren txostenak, 2022

A/HRC/54/24 txostena, egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeei buruzko errelatore bereziarena, Fabian Salvioli. Justizia trantsizionalaren zutabeei eusten dieten nazioarteko estandar juridikoak, 2023